

# ...eta **kitto!**

750 zkia. 2011-11-4

ASTEKARIA

TOKIKOM



# KAN

# TUZ

# kulun

# katzen



**graduazio guztientzat**  
arrazateki + kristalak

**77€**

Bidebarrieta, 2  
Tel.: 943 20 05 22  
EIBAR

**MULTIÓPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan



*Apirilak 9  
gorde eguna  
alkarrekin  
pasatzeko!*

**...eta kitto!**

**Bazkide jaixa  
2011**

BABESIA





**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekararen E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maidier Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEÑUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi

eta S. Hernandez

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidier Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Estibalitz González

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

7.950 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHTA:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\*)k ez du bere gain hartzen

aldizkarian adierazitako esanen

eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**HALA BE.-** Hala eta guzti be, halanda be. "Hainbeste diru eta hala be kontentu ez". Batez ere. "Ez deuat aterik zabalduko hala be belu bahator". Azkenean, eskerrak. "Hala be! Azkenian etorri zara".

**HALABIHARRIAN.-** Kasualidadez. "Urkusura noiala, halabiharrian topau neban nere emaztia izango zana".

**HALAKO ETA HOLAKO.-** Urtia eta sendia. "Halakok eta holakok ziñuen zu guzurti bat zarala".

## EDITORIALA

### EUSKARAZKO HEDABIDEAK, BESTE JAUZI BATERAKO ORDUA

Euskarazko hedabideen historia jarraitu duenak, badaki azken 30 urteetako abaroen egin dela biderik emankorrena. Eta badaki denbora horretan emandako aurrerapausoa itzela dela. Gaur egun 400.000tik gora biztanlek kontsumitzen ditu euskarazko hedabideak, 2008ko Eusko Jaurlaritzaren ikerketa baten arabera.

Komunikazioa da gure ardatza, inguratzen gaituen mundua nola ikusten dugun kontatzea, ikusmolde eta euskarri anitzez. Elkarren lehian eta elkarren osagarri. Hori da lokaletik globalera egiten dugun ekarpen nagusia, hizkuntza, euskaraz egiten duguna. Harro gaude egindako bide horrekin, eta gure euskaltasunetik munduaren ikuskera ugari eskaintzen ditugu.

Baina ez da nahiko, ibilbide horretan sakondu behar dugu, orain artekoa hobetuz eta zabalduz. Edozelako gizarte eta kultura modernoren geroan giltzarrri da hedabideen zeregina. Printzipio eta helburuetan letra larriz aitortzen da garrantzi hori, baina sostengu ekonomikoan ez, ez behintzat hedabide ez publikoei dagokienez. Ezagun da EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herrian oso egoera desberdinak bizi direla: Nafarroan eta Iparraldean erakundeen sostengua hutsala da; EAEen oso bestelakoa da, baina ez nahikoa, aurrean ditugun erronkei begira eusteko adinakoa ez bederen.

Hedabide ugari ari dira ixten munduan, gurean aldean handi eta indartsuak izandakoak. Eta guk ere enbataren erdian dihardugu. Publizitatea behera, salmentak ere bai, diru-laguntzak urritzeko joeran... Noiz arte eutsi ahal izango diogu?

Bankuen, autoen, altzari eta elektratresnen salbamendu garaian, guk ere sostengu sendoagoa aldarrikatzen dugu. Maiz aurpegiratu zaigu diru publikotik bizi garela, bai euskal kultura, bai euskarazko hedabideak, konplexua sortzeraino ere bai agian. Orain, ostera, inoiz baino argiago ikusten da nola giltzarritzat jotzen diren esparru eta proiektuetan, erakunde publikoek dirutzak bideratzen dituzten, izan hauek eremu publiko edo pribatukoak.

Eta ekonomikoki ere sektore garrantzitsua da euskarazko hedabide ez publikoena: 600 langiletik gora ari gara bertan, hilerio soldata etxera eramanez eta euskal gizartearen aberastasunean gure alea jarriz.

Azken 30 urteetan ibilbide oparoa egin dugu, baina bada ordua beste jauzi bat emateko. Gure konpromisoa hemen dago, egunerokoan ikusgai. Oraingoan, herri erakunde publikoen sostengu ekonomiko handiagoa aldarrikatzea gatoz, errepide, trenbide edo eraikuntza handien zati txiki batek gure etorkizuna berma dezakeelako. Euskarazko komunikazioak mezezi du tamainako apustua eta euskal kulturak ere bai.

*EUSKARAZKO HEDABIDEEN BATZARRA*

## asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Palestinarentzat beharrezkoa da Israelgo kartzelatik pasatzea karrera politikoa egiteko, horrek etsaiaren aurka borrokatu dutela erakusten baitu. Hori gizonezkoen kasuan. Emakumeek, ostera, ez dute borrokalarien pedigree-a lortuko eta bizitza guztiarako gearatuko dira markatuta: behin kartzelatik irtenda ere, familiaren kontrola jasan beharko dute"

(Ana Carbajosa, kazetaria)

"Ezkerreko ideologia euskalduna hipokrisiaren gailurra da. Euskal progresista, oro har, oso ondo bizi da, pribilegiatua da eta kapitalismoaren onuradun aktiboa. Berak badaki eta aktiboki hartzen du parte horretan, praktika eraldatzaile pertsonalik egin gabe. Baina bere buruaren irudi ona izateko, progresista sentitzen da eta apaizekin sartzen da"


(Jon Sarasua, irakaslea eta kultur eragilea)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

## autuan

### IBILGAILLUENDAKO ZERGA

Honezkero zabalik dago trakziño mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga pagatzeko inpuestua. Martxuaren 10era arte egongo da pagatzeko aukeria, jarraixan aittatzen diran banku edo kutxetako batian: Kutxa, Caja Laboral, Banco Guipuzcoano, BBVA, B.Santander eta La Caixa. Bestela, internet bittartez "Nire ordainketa" atalian be pagau leike.

### KOMUNIKABIDIEN ETIKAZ

Eibarko parrokiak eta Elizbarrutiko Idazkaritza Sozialak antolatutako hitzaldi-ziklua amaitzeko, martitzenian Juan Pagolak emongo dau hitzaldixa Portalean (areto nagusixan), 19.30xetatik aurrera. Balixo etikuen krisixa eta konzientzia morala ardatz izan dabean jardunaldixak agurtzeko komunikabidien etikaz egingo dau berba Pagolak.

### PLAN ESTRATEGIKUAREN EBALUAZIÑUA

Eibarko Plan Estrategikua zein neurritan bete dan ebaluatzeko, "enpresa pribatu bat 40.000 euro pagauta kontratatziak merezi ez dabela" diño Mari Asun Gartzia Aralarreko bozeramailliak. Dirua alperrik erabiltziak aparte, herritarrak atzera be parte hartu barik, albo batera laga dittuela salatu dau alderdixak.

## Doaneko wi-fixa kalian

AURREKO ASTIAZ GEROZTIK GURE HERRIXAK INTERNETEN DUAN NABIGATZEKO AUKERIA DAGO, horretarako preparau dittuen tokixetan. Urkizu aldiak eta Untzaga inguruan, 10 puntutan eskin-tzen dabe "Eibar WIFI" sariarekin bat egitteko konexiñua: Barakaldo kale, 1; Urkizu pasealekua; Urkizu ibitokixa, 24; Eibarko Txikito, 1; Untzaga, 1; Isasi, 1; Juan Gisasola, 2 eta 12; eta Sostotarren, horretxek dira wi-fixa daken tokixak. Aurreko barixakuan prentsaren aurrian presentau eben zerbitzua Miguel de los Toyos alkatiak eta Gowex enpresa hornitzaillako ordezkariak.



De los Toyos alkatiak Untzagako wifi-xa probau eban, Gowex enpresako ordezkariarekin eta Jose Luis Vallés ziñegotzixarekin. / SILBIA HERNANDEZ

Mobillarekin zein ordenadore eramangarrixarekin konektu ahal izateko emon biharreko pausuak honetxek dira: ordenadore, konsola edo mugikorren wi-fixa aktibau, Eibar Wifi seiñala billau eta bertara lotu; nahixago dozuen nabegadoria aukeratu (Internet Explorer, Firefox, Opera...); defektuz, Wiloc webgunia

kargauko da eta bertan, "Eman izena" idatzitta daguan tokixan klik egiñ eta bertan agertutako galdereri erantzun; horren ostian e-maillez erabiltzaille izena eta pasahitza jaso eta nabigatzen jarduteko moduan egongo da erabiltzaille, norberak bere @wifimas operaduariaren saria aukeratuta.



Javier eta bere semia, Larreategi eta Urrutuarekin, hiztegi teknikua aurkeztu ebenian. / SILBIA HERNANDEZ

## Javier Zubiaurre enpresarixa hil da

### AZITTAINGO INDUSTRIALDIAN DAGUAN JAZ ZUBIAURRE ENPRESAKO BURUA URTIETAN IZAN ZAN JAVIER ZUBIAURRE

Ezenarro eguaztenian hil zan, 80 urte zittuala. Enpresa munduan egindako biharrengaittik ez eze, euskeriarekiko zekan zaletasun eta begiruniarrengaittik be gogoratuko dabe askok. Izan be, osasunak horretarako aukeria emon zetsan arte, euskeriak enpresan isladia eukitzeko biharrian jardun eban, bere enpresan bertan hasitta. Hain zuzen be, 2009xan kaleratu zan "Eskuila metalikoen hiztegi teknikoa", bertako bihariñendako pentsautako hiztegitxua, lankide izan zittuan Fernando Larreategi eta Javier Urrutuarekin batera landu eban, ...eta kitto! Euskara Elkartearen laguntasunarekin.

Bestalde, oin dala egun batzuk, urtarillaren 26xan Berriren hil zan **EUSTAKIO MARTIN** Urzainki, 76 urterekin. Eibartarra izanda be, azken urtiak hamendik kanpora emon dittu hainbat musika-piezaren sortzaillia izanda-kuak. Lerro honen bittartez haien senide eta laguneri gure alkartasuna azaldu nahi detsagu.


## MAITE ANGUERA PAREJA

(I. URTEURRENA: 2010/II/5)

Bere aldeko **MEZA** ospatuko da **otsailaren 5ean (zapatua)**, arratsaldeko 18.00etan, Amañako San Salvador elizan.

**URAK DAKARRENA URAK DAROA ZUK EMANDAKOA GUREKIN GERATZEN DA**

Zure famelixa





Informaziño zihetzagua <http://ikasten.nireblog.com> alkartiaren blog-an aurkittu leike.


## Programazio zabala Ikasten-ekin

**AURREKO ASTIAN EGIÑ EBAN URTEKO BATZARRA IKASTEN DEBABARRENA-KO ESPERIENTZIA ESKOLAKO IKASLE OHIEN ALKARTIAK**, parte-hartze haundixarekin, gaiñera. Lehelengo promozioak kursua amaittu eta segiduan sortutako taldiak urtetik urtera proiektu gehixagori heltzen detsa eta, honezkerro, herri-maillan hillero antolatzen dan programaziñuari begira, Ikasten-ek antolatutakuak hartzen daben tokixa etenbarik hazten doia. Hitzal-

di, irteera, eta bestelakuak herri-ritar guztiendako zabalik dagoz (sarrera libria da) eta era guztietako gaixak lantzen ditue. Datozen egunotarako, bestiak beste, Enrique Zuazua matematikarixaren hitzaldixa, filosofiaren gaiñeko beste bat, sendabelarren inguruko saiua, mendi-urteeria eta Kaleetan Kantuzerako entsegu eta kalejiria antolatuta ditue. Informaziño zihetzagua nahi izanez gero, alkartiaren bloga (<http://ikasten.nireblog.com/>) konsultau leike.



Karmen Baroja.



Ana Aizpiri.

## Karmen Baroja informatibuetako editore barrixa

**ALBERTO SURIO ETB-KO ZUZENDARIXAK MAIATZEKO HAUTESKUNDEERI BEGIRA EGINDAKO AZKEN ALDAKETERI** begiraten hasitta, kanbixorik haundixenak informatibuetan gertatu dira eta, aldaketa horretako batek zu-

zen-zuzenian eraginda, Karmen Baroja eibartarra "Egun on Euskadi" editatzetik "Gaur egun" eta eguardiko "Teleberri" editatzera pasauko da, azken zeregiñ horretan oiñ arte Ana Aizpirik betetako tokixa hartuta.

# anzorik anzo



## Txaltxa Zelaiko parkerako asmuak aurrera

**Aspaldiko eskaeria izanda be, askok nahi baiño gehixago luzatzen dihardu herrixan eurittik eta hotzarengandik babesteko parkia prestatzeko proiektua.** Halanda be, Udalian ez dagoz horrekin ahaztuta eta, Ezker Batua-Berdeak alderdixaren ekimenari esker, epaitegi aldameneko parkian estalkixan ipintzeko proiektuarekin aurrera egiñ ahal izateko, oindiok erabilli ez daben 200.000 euroko partidia dago iazko prespuestuetan. Teillatu itxurako estalkixaz aparte, haixia eta bestelakuak saihesteko, Ermuan dagan parkiaren antzerako zeozer nahi dabe gure herrirako be. Bizkaitarren ereduari jarraituz gero, premiñia daganian kristalekin itxitta geratzen dan parkia eukiko genduke. Holan, neguan kalia egon nahi dabenak, batez be haur txixixekin ibilli bihar diranak, nahiz eta eguraldixak lagundu ez, busti barik kalia egoteko aukeria eukiko leukie eta, modu berian, oiñ kalia egitten diran hainbat ekitaldi eta jarduera ez lirakez eguraldixaren menpe egongo etorkizunian.


## eibar kaleka

### Otaola Hiribidia

Markeskua eta Bizkaiko muga bittarteko kaliak, beste askoren modura, basarri bateri zor detsa izena. Hain zuzen be Ermuko mugan eguan Otaola Bazterra, 1965ian Unibersidade Laborala jasotzeko bota eben arte. Otaola Erdikoa / Otolerdi (Kiñarra) izeneko basarrixa be badago.

**Pegora kopurua:** Gehixenak lantegixak dira eta numerauta dagoz. Erroldan jasotakuak: 10, 12 (lantegixak), 15 (lantegixa), 18, 26, 28 eta 29 (unibersidadia).

Erroldatutakoak: 53





asteko

13.702

datua

ibilgailuk ordaindu dabe azken urtian zirkulaziño inpuetua, euretatik 1.341 motorrak. Autuak, holan, 11.500dik gora dira, kamioiak 600dik gora eta 122ña traktore eta remolkiak. Zifra horrek erakusten dabenez, milla biztanleko 420 ibilgailu dagoz herrixan; hau da, lagun bittik auto bat dogu herrixan.

## Sindikatuak “oso pozik” dagoz grebarekin

**AURREKO ASTERAKO DEITTUTA EGUAN GREBA OROKORRAREN INGURUAN JENDIAK EMONDAKO ERANTZUNAREKIN** “oso pozik” azaldu ziran sindikatuetak ordezkarixak egunian bertan, azken orduan egindako baloraziñuetan esandakuari jarraituta. EAE eta Nafarroa maillako datuetatik aldendu-ta, herrixan bertan lanuzteak jarraipen eta babes haundixa izan ebala diñue eta “Eibarren denda eta taberna gehixenak itxitta egon zirala” azaldu dabe. Beste aldiak, hau da, Adegik emondako datuak zerikusi gitxi dake sindikatuak emondakuekin; patronalaren arabera, Gi-

**ARALARREK TRIBUNAL GORENERA JOKO DAU ERISONOREN AUTUAREKIN**, aurreko astian, barixakuan emondako prentsaurrekuan azaldu ebanari jarraituta. Mari Asun Gartzia bozeramaillak Sergio San Jose alderdikia eta Dani Maeztu abokatua izan zittuan aldamenian eta Erisonoko biharrek legezkoztat emoten dittuan azken sententzia Tribunal Gorenera eruateko asmua agertu eben, Aralarrekuak argi ikusten dabelako biharrek hasi zittuenian “irregulartasun” ugari egon zirala, “bestiak beste 457.000 metro karratuko azaleria betetzen eban mendi zatixa eskuan behin-behiñeko permisua baiño ez zekela jaten hasi ziralako”. Beste batzuetan salatu izan daberenan bidetik, “Teknikerrek egoitza barrixa jasotzeko beste aukera batzuk



Mendixari lurra kentzeko lehelengo biharrek permisua “provisionalarekin” hasi zirala diñue.

bazittuela” gogoratu nahi izan eben, eurak Tekniker haunditzeko proiektuaren kontra sekula ez dirala egon azpimarratziarekin batera.

Aralarren erabagixaren barri alkatiak pare bat egun aurretik egindako agerraldixaren ostian euki genduan. Izan be, eta sententzien inguruan egon di-

ran ika-mikak ixilarazteko eta gauzak argi lagatzeko asmuarekin, Erisonok aurrera egitteko bihar dittuan baimen eta enparau guztiak dittuala jasotzen dabenez azken sententzia, Aralarrek Tribunal Gorenera eruangodabena ezagutzera emoteko agerraldixa egiñ eben gobernu-taldekuek.



Jendetza batu zan bai manifestaziñuan eta baita gero Untzagan. / SILBIA HERNANDEZ

puzkoako bihariñen %72k erregular, greba deialdixari kaso egin barik egiñ eben biharra. Edozelan be, eguen arratsaldian Eibarren egindako eskualde maillako manifestaziñuan jendetza batu zan pensiuñen inguruko erreformaren kontra protestatzeko.

## Dirulaguntzak Diputaziñotik

**28 MILLIOI EURO BANATUKO DITTU DIPUTAZIÑUAK GIPUZKOAKO ENPRESEN ARTIAN**, krisixari aurre egitten laguntzeko. Eibarren, Teknikerrek 700.000 euro jasoko dittu eta Bic Gipuzkoa Berrilane 100.000 euro. Gipuzkoak dakan %7'8ko langabezi-tasarekin pozik azaldu da Olano, Euskadikua altuagua, %10'89kua dalako.

## Euskarazko hedabidien editorial bateratua

**BESTE 77 HEDABIDEK EGINDAKUAREN BIDETIK, ...ETA KITTO! ALDIZKARIXAK BE BAT EGIN DAU** 3. orrialdian irakurri zeinkien editorialarekin. Sustatzaillak “historikotzat” jo dabe ekimena eta, gurian bezala, bat egin dabenez beste komunikabidietan be “Euskarazko hedabideak, beste jauzi baterako ordua” izenburuko idatzixa osorik emon dabe argittara. Testuan azaltzen danaren ardatz nagusixa, gaur egungo egoerari begira tokixan tokiko komunikabidiak etorkizunari zelaz heldu da. Izan be, komunikaziño arluan dihardugunok hamaika oztoporri aurre egitten ohittuta gagoz, baiña egoera ekonomikuak hobera egin barik atzerako pausuak emoten dihardu azken aldixan eta, horrekin lotuta, aurrera egitteko biharrezkuak diran laguntasunak murrizten jua dira kasu askotan.




*Iñaki Arriola herriko alkatia izandakuak eta gaur egun Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Etxebizitza Sailleko konsejeruak pare bat urtetan landuko dabean pisuen inguruko proposamena egin dau. Hor hainbat neurri aurreikusten dira, tartian pisua hutsik dakeneri zergia ordaiñaraztia eta Babes Ofizialekua dakeneri be hainbat muga jartzia.*

## Zelan ikusten dozu etxia hutsik dakeneri zerga ordaiñaraztia?



**RICHARD GARCIA**  
38 urte  
bihargiña

Ondo ikusten dot etxebizitak hutsik dakeneri, moduren baten edo bestian, etxebizitza horri erabilpenen bat emotera bihurtzia. Jende asko dago etxebizitza propiua izateko aukerarik ez dakana eta halakueri lagundu egin bihar ko zetsen.



**BEGOÑA SÁNCHEZ**  
72 urte  
etxeoandria

Ez neuke jakingo zer esan. Etxia hutsik badakazu, izan leike ez alokatzia, baiña seme-alabentzat gordetzia nahi dozulako... Zaila da hori bihar dan moduan baloraztia inpestua ezartzerakuan.


**SANTIAGO RODRÍGUEZ**  
27 urte  
injenierua

Alkilerria sustatzeko modua dala uste dot; ondo ikusten dot hori. Halanda be, ez dakitt etxebizitza horrek hutsik izatiagaittik jasozten diran zergak era horretako politika sozialak sustatzeko erabiliko ote dirazen...



**MARIMER MUÑOZA**  
50 urte  
irakaslia

Zerga horri, zer moduko erabilpen emoten jakon arabera, ondo ikusi neike. Hau da, probetxua etaratzen bajako eta etxebizitza-rik ez dakenentzako politiketan eragiteko bada, ondo ikusiko neuke. Aukerarik ez dakeneri laguntzeko, batez be.



**EGOITZA NAGUSIA**  
Bilberrista 20 - behea, eskuma

**M FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

**Tanatorio eta Errozketa laber**  
Egoibonen (Signo poligonari)  
Partikular, natua eta aseguru etxerri zerbitzuak  
Koroak - Ekialak - Urtearenako ekialak  
Euskal Herri osoko ospitaleetan bertan 24 ordu  
Nazio eta Nazioarteko irratidok

**Mugica Ehorzketa**  
Funtzioak 14/15

TELEFONOA (24 ORDU)  
**943 201 951**

**AURREMATRIKULA ZABALIK**  
2011-2012 IKASTURTEA

Tfnoak. 943 202 133  
943 121 698  
[www.lasalleieibar.com](http://www.lasalleieibar.com)

**La Salle Eibar**

Urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra (biak barne):  
**HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA** (D ereduak)  
**DBH** (B eta D ereduak)  
La Salle Isasi eta Azitain Ikastetxeetan

*Mireia, Jose Antonio, Iban, Andoni, Victor, Shirley eta Romani. Zazpi lagun horiek dira San Juan kalean azaroaz geroztik martxan dagoen Garaguneko "biztanleak", egunez behintzat. Eurekin batera Pilar Zugasti eta Saray Garzia begiraleak egoten dira, Jose Santa Ines arduradunarekin elkarlanean. Adimen urritasuna duten lagunen bizitza kalitatea ahalik eta altuena izateko helburuari jarraituta, egunero batzen dira familia txiki bat bailiran, beste guztion modura bizitza honi aurre egiteko modurik onena bilatu nahian.*

**JOSE SANTA INES, GARAGUNE zentroko arduraduna:**

## “Eurek prestatutako janaria goxoagoa omen dago”

**- Zer da Garagune zentro bat? Zer egiten duzue hemen?**

Egunez hainbat jarduera garatzeko tokia da. Adimen urritasuna dutenei bizitza beta, aukerez betetako bizimodua lortzen laguntzeko beharrezkoak dituzten ekimenak lantzen ditugu, azken batean. Jarduerak lokalean bertan eta, ahal den guztietan testuinguru naturaletan, hau da, kalean, dendetan, parkeetan... inguratzen gaituen munduan, azken batean.

**- Eibarren zabaldu berri den zentrotik aparte, Gipuzkoako beste toki batzuetan ere badaude Garagune gehiago, ezta?**

Bai. Izan ere, orain hemen dauden lagunak hau zabaldu arte Arrasatera joan behar izaten zuten hemen egiten dutena egin

ahal izateko, horrek dakarren guztiarekin. Hemen dauden zazpi lagunetatik lau Arrasatetik etorritakoak dira. Oso pozik daude, euren bizitza kalitateak nabarmen egin baitu gora. Berez, zentroa kudeatzeko ardura Goyeneche Fundazioak dauka, baina Foru Aldundiarekin hitzartutako zentroak dira. Eta Eibarko kasuan, lokala Atzegirena da eta Gureak-ekin elkarlana dauka baita ere.

**- Nolakoa da zuen eguneroko martxa?**

Astelehenetik barixakura, goizeko 09.30etatik 17.20etara egoten gara hemen. Goizean batzuk oinez etortzen dira ateraino eta beste batzuk, Soraluze eta Elgoibartik datozenen kasuan bezala, Gurutze Gorriak eskaintzen digun garraio zerbitzuaz baliatuta ailegatzeko dira. Gero, egunaren arabera,



Jose, Pilar eta Saray begiraleekin batera, Garagunera doazenen gustuetara moldatzen ahalegintzen da. / SILBIA HERNANDEZ

jarduerak aldatzen joaten dira. Zentro honek duen berezitasunetako bat sukaldea da, beste zentroetan "catering" zerbitzua erabiltzen dute otorduetarako, baina hemen, sukaldea egotean, euren hasieran galdetu genien zer zuten nahiago, janaria kanpotik ekartzea ala eurek prestatzea, eta denak ados egon zirenez, jaten dutena eurek prestatzen dute. Erosketak ere eurek egiten dituzte eta menua aukeratzen ere lagatzen diegu, guk emandako pautak batzuei jarraituta. Eta, diotenez, eurek sukaldatutakoa askoz ere goxoagoa omen dago!

**- Eta, sukaldeak ematen dituen lanetatik aparte, zertan ematen dute denbora?**

Talde txikia izan arren, oso talde heterogeneoa da: adinari begira gazteenak 27 bat urte dauzka eta nagusienak 66. Eta autonomia maila ere ezberdina da kasu bakoitzean, batzuen autonomia maila oso altua da eta besteena, berriz, murriztagoa. Edozein modutan ere, eskulanak eta bestelako kontuak aukeratzeko orduan, euren gustuak aintzakotzat hartzen ahalegintzen gara beti. Laster Kzgunean ikastaroa egingo dugu eta astean behin liburutegira joaten gara. Ordenagailuan ibiltzen laguntzeko, gainera, Nagusilaneko hiru boluntario etortzen zaizkigu. Asmoa, gainera, eurek ere lan txikiak egiten joatea da eta bide hori lantzen dihardugu, besteak beste zine edo antzerkiko kartelak toki batzuetara eraman eta antzerako eginkizun posibleen zerrenda aztertzen.



Eibarko zentroko berezitasunik handiena sukaldean dago: bazkaria eurek prestatzen dute egunero. / SILBIA HERNANDEZ



# Ondorengueri transmititzeko 38 kantu tradizional




## LAPIKOTXIKI

Lapikotxiki inprenta bidian zeguala, kantu-emoille bati horren barri emon eta kopla baten zatitxua etorri jakon burura Esti egilliari: "Hasiak egiña dirudi, egiñak urregorria". Hasten dan guztia, apurka-apurka egitte bidian jartzen dalako eta, behiñ egindakuan, urregorrixaren besteko balixua dakalako.

Liburu eta DVD barrixaren prozesuaren nondik-norakueri begiradia botatzerakuan, Estibalitz Gonzalezek "auzolanian egindako zeozarren" garrantzi-za emoten detsa, "askoren ekarpen txikixa batu dittuana". Horri gehitzen detsa, eta harro dago gaiñera, "nire kostatikan,

laguntza eskatzen jakiñ izan dodala". Harro sentitzen da, "harroskiña izan barik, eh!", batez be "arlotan eliteko jendiarengana hurbildu eta euren



Harañegun arratsaldian aurkeztu zan Portalean Estibalitz Gonzalezek 0-2 urte bittarteko ume baten garapen prozesuan txertatutako 38 kantu tradizionalen osatutako liburua eta DVD-ia. Gure astekarixan jua ziran publikatzen horrek abestixok, 2004ko oktubrian hasi eta 2007ko julixora arte. Guztiak batu eta, hamendik aurrera, Eibarren jaixotzen diran guztiakin batera, 0-2 urte tartian dagozen guztien etxietan jasoko dittue abestixak. Egilliak diñuan moduan, "horko batzuek ikasi eta erakusten badozue, besterik bihar ez, horretarako munduratu da-eta: ondorengueri transmititzeko". Liburua salgai dago honezkeru Eibarko librerixetan.

aportaziñua jaso dudalako". Ar- gi ekan proiektuaren alde borrokatu bihar ebala eta kolaboraziñuak doakuak izan bihar ziralara eta guzti hori gainditziki gustora laga dau.

### Urriak kantuak biltzen

Bere lan egitteko moduaren auto-ikuspuntu moduan azter- tzen dau oiñ egindako lana eta erdarazko tesón hitzak laburbil- tzen dau "hobetuen nire jardunbi- dia" diño berak. "Ez da konstan- tia izan, baiña bai etsi gabekua eta konfiantza emon dostana. 101 lagun izan dira hor lagun- tzen. Ez da makala kontua!".

Konstantia izan dana da egi- lliaren ahalegiña haur-kantak ba-

## Iparramerikako nabajo indixuak euren aberastasuna ezagutzen dittuezen kantuen arabera neurtzen dabe

tzen, geratu bakua. Oin be, libu- ruan 38 kantu badagoz, 300etik gora zittuan bilduta, selekziñua egiñ eta hónek aukeratu baiño lehen. Aurretik, Ermuko ikastola- ko lankidiekien, "Kantu-jolasak" bi- deo formatuko DVD-ia be kalera- tuta daka bere herrixan.

Oingo proiektuak aurten, aperi- llian, beteko dittu hamar urte ekin zetsala. Orduan be Fernando Muniozguren izan zan akuillu la- na egiñ ebana, "Esti, dakazuzen hórek kantutorri bueltaxo bat- zuek emon bihar detsaguz" esan zetsanian. Ordura arte bilduma personala eta, nolabaiten, pribatua zanari argitaratzeko eta kon- partitze bidian jartzeko gonbitia egin jakon.

"Gure txikixa" aurkezterakuan, sukaldeko errezeten liburua ez dala-eta, izenaren nondik-nora- kua argitzen dau Gonzalezek: "Umien berbetiari lekutxua egi- tterakuan, lapikotxiki esan jako sekretuak ixillixan gorde ezin da- benari eta espresiño horrek ume guztiakin loturia dakala uste dot".

"Kantuz kulunkatzen" azpitu- luarekin kaleratu barri dan libu- ruak 38 kantu tradizional dittu; baiña ez hori bakarrik. Baita eu-

rekin lotutako "partiturak, kantuen jatorrixaren argibidiak eta zelan erabili argitzeko fotografia be". Abestixok 0-2 urte bittarteko ume baten garapen prozesuan txertatuta egotiaz gain, ume eta famelixa erreala bati oiñarritutako fikziozko historixa baten egunerokotasunian bizitza hartuta, "ipuintxo laburren bittartez, alkarren loturia daken egoera desbardiñaz" doiaz lagunduta.

Liburuarekin batera, DVD-ia doia pack berian, horko protagonistia gure rebistakua bera ez bada be: "Jaixo zanetik bi urte bete zittuan arteko irudixak dagoz hor, Oihanenak. Ordurako Maddik...eta kitto!-n egindako bidia erreproduzidu eban Oihanek DVD-erako". Liburuan partitua eta dagokixon letria, kantuen audixua eta kantu-emollien biografia eta erretratuak ikusi leikez.

Estibalitzek ondo gogoratzen dittu hasierako uniak, "ume jaixobarrixa ikusi nebanian, Ermuko amamaren etxian". Amak itsu-itsuan baietz esan zetsala diño eta aitta be erretratu batzuk klikatzen hasi zala. "Loturatxua egittia biharrezkua izan zan, obligaziño moduan hartuta: umiarekin be, fortzau baiño gehixago, probokatu egin bihar ziran situaziñuak". Egunetik egunera balixo gehixago hartzen jua zan proiektuak



Egillia ejemplarrak siñatzen Portalean. / SILBIA HERNANDEZ

Proiektuan modu bati edo bestian lagundu dabenak ez dira gitxi izan.



Adin guzietako jendia batuzan presentaziñuan.

eta "gurasuen eta famelixakuen disponibildadia totala izan zan. Eskerrik besterik ezin detset emon", dio berak.

Egillia ipuin-kontalarixa da, andereñua, idaztia gustatzen jakona eta baita "berben ehizan" ibiltzen dana. Pedagogia eta puerikultura be ez jakoz arrotz



Estibalitz Gonzalez, liburuaren pasartietako protagonista txixekin.

### KANTU-EMOILLIAK:

Bizkaia aldetik datoz liburuko kanta gehixenak eta, emoillien artian, Ermua, Mallabia, Markiña, Lekeitixo, Ondarru, Ziortza-Bolibar, Igorre, Aulesti, Zeanuri, Amoroto, Gernika, Sopela eta Bilbokuak dagoz, Arrasate eta Irungoekin batera.

### ABESLARIXAK:

Libururako kantu horrek abestu dittue hainbat ahots ezagunak, honako hauek tartian: Xabier Amuriza, Roberto Bergara, Aitor Gorosabel, Miren Narbaiza, Asier Serrano, Zaloa Urain, Amaia Zubiria, Alan Griffin, Joxean Goikoetxea, Juan Carlos Perez eta Bernardo Atxaga.

egingo: "Izan zan sa-soia etxia Ser Padres aldizkariz beteta nekala". Lehelengoko ipuiñari hainbat buelta emon zetsazen, baita gurasuak aukeratzeko perfillaren inguruan. "Bakarkako lana izan zan, hor hutsune bat be bazalako, 0-2 urte bittarteko horretan; gero, esko-

lan, musikalidadia lantzen da, modu bati edo bestian". Zaletasuna, baiño, ez jakon orduan piztu Estibalizi: "Durangoko Azokan be erraz da ni topatzia: kantuen stand-ian egongo naiz". Eta badira urtiak, Laura Mintegi irakaslia ekala, kantuak batu eta horren inguruko lana entregau zetsala. Baita abestixak buruz ikasi eta julixo bati koadernotxo batera pasau zittuan. Hortik aurrera, Drogetenituri Ermuko


rebistan hasi eta hogei bat kantu-zale lokalizau zittuan. Zaletasuna hor izango da beti; dana dala, "lan haundixa egin dogu, bai, eta oin reposatzia be komenigarrixixa izango jaku", diño berak.

Siñistuta dago liburuari bako- txak bere bersiñua egingo detsala eta "etxe bakotxeko Txalo-pintxalo bat daguala, bere kosetxakua dana". Kantu libururako partiturak Albokako Ermuko irakasliak egin detsez, ediziñua ...eta kitto!-ren esku jua da eta Eibar-ko Udalaren laguntza jaso dau.


## Esperientzia desbardiña eta aberasgarria

**HORRELA DESKRIBIDU DABE PROIEKTU HONETAN PARTE-HARTZAILLE IZANDAKUETAKO ASKOK EUREK BIZITAKUA.** Gure astekarira hiru astetik behin ekarzen genduan Maddiren amak, Nerea Gallastegik, onartzen badau be "kamariarekin ibiltzia grazia askorik" ez detsala egitten, "oiñ, ixa konturau barik, Maddiren argazki pillua ditugu. Eta argazkixak begiratzea beti da gustagarria". Fotografia gehixenak bere amaren etxian egiñ ebela diño eta gogoratzen dau bat: "Maddi altxatu eta goixan eutsi bihar jakon. Eta pisua zekan, ez pentsa! Jausiko jakola-eta, haren bildurak!". Pozik dago emaitzarekin: "Ez neban halakorik espero; merezi izan dau".

Kantuetan-eta lagundu dittuenen artian, herriko hainbat abeslari dittugu: **Aitor Gorosabelek** "beste kolaboraziño baten moduan hartu nebana azkenian desbardiña izan da niretzat". Praktikatze aukeria be izango dau, aitta izan dalako. **Zalao Urainek** ...eta kitto!-n kalera-tutakua jarraitu eban eta "ama moduan eta andereño moduan eragin desta" diño, berarendako aberasgarri izan dala baieztatzerakuan. **Miren Narbaizarendako**, "abestixak ezezagunak izanda be, doiñua ikasi eta hara juan giñan"; onartzen dau, gaiñera, grabaziñuan-eta ondo pasau ebal. Disfrutau, nahiko disfrutau eban be **Roberto Bergarak** grabaziñuetan: "Ondo pasau genduan, Xabier Amurizak eta bixok. Zelan definiduko neban? Berezixa eta aberasgarria aldi berian. Herriko kantuek dira, herrikoiak oso, eta Imanol Urbietta moduko konpositoriak egitten dittuenarekin oso urruti ez dagozenak".



Gorosabelek, aitta barrixa izanda, pozarren hartu dau proiektuan parte hartzia.



Hiru urtetan gure astekariko protagonista txikixa izan zan Maddi gaur egun, neska haundi eginda, Nerea bere amarekin.

"Konturatuta nago gitxiengua dala zertarako eta zelan erabiltzen dan: hamen proposatzen dana beste egoera baten etortzen bajatzue mingaiñaren puntara eta akordura eta zuentzat balekua bada, erabilli:

1. Esandakuaren adibidia "Libe politte" abestixa dogu: (ume txiki bat hartu, aurretik gurasuekin lotuta egongo dana, eta abestu sudurra laztantzen, belaunen gaiñan, txaluak jo eragitten).

2. "Antoniyo, nora zoiaz?" abestixak erakusten desku umiari zein gitxi inporta jakon kantua-aren esanahixa, letria. Benetan garrantzixa dakana da kantuek transmititzen daben gozotasuna eta txikixak sentitzen daben hurbiltasuna (belaunetan umiori).

3. Umia adin batera aillegau arte kantu-hartzailia izango da: guk kantau, entzun berak. Bera kantuan parte-hartzen hasten dannerako "Zer daukazu eskuan?" morokuak zoragarrixak dira, ezkutatze-topatze magia horrekin disfrutatzen daben sasoirako".

Aurreko hiru ejenpluetan esandakuaren adibide praktikua egiñ eban Estibalitzek bere loiba batekin Portaleko presentaziñuan. Arrakastatsua izan zan: umiak gozo-gozo segidu zetzan.

Aldaketaz jositta dago umia jaixotzetik bi urte bete arte eta aldaketoi erreparatu detsa kalera-tu barri dan liburuak. Eta, ilusiñoz eta ezjakintasunez betetako guraso eginbarrixen ibilibidian, bi-

dai-lagun izateko, hau da, oiña-rrizko puerikultura emoteko eginda dago. Kantuek, lotarako bakarrik barik, hazten laguntzeko dira: txaluak egitteko, kulunkatzeko, laztantzeko, jatordueta-

rako... hainbeste aplikaziño emon leikixo! Eta, iturri tradizio-naletik edanda, 38 ume-abesti dira honen guztionen atxekixia, DVDian entzungai dagozenak. Disfrutatze prest!

Toribio Etxebarria, 4

**EMAKUME ETA GIZON MODA**

**Valenciaga**

K O N F E K Z I O A K

943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

**Helbidea**

**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
Orbeako dorreetako  
1. solairua


**CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA**

☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Anlisi Klinikoak	12 Koloproktologia
6 Ortodontzia	13 Erizaintza
7 Otorrinolaringologia	14 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa

**BERRIA: Foto-depilazio Unitatea**

TEEN-  
AJEA



Rickie Hawtin da Beato DJ-ak gehien jarraitzen duena.

Lau bat urte dira DJ Beato lanean hasi zela, Tas-Tas-en: ondoren, kuadrilaren lokalean musika jartzeaz aparte, Ryder-ean eta Bost-ean ere entzun izan ditugu berak jarraitakoak. Musika bereziki bizi du, ezzerri ez dio ezetzirik esaten eta jendea musikaz aberastea du helburu.

**GORKA BEATO, DJ-a:**

**“Musika kultura landu beharra dugu”**

**- Zer da zailena edo lan gehiena ematen diona DJ bati?**

Burua altxatzea. Hori egitea beharrezkoa da, jakiteko jendeak jarritako musika gogoarekin jarraitzen duen. Horretarako, estilo ezberdinak menperatu behar dituzu: denetik jakin behar duzu eta estankatuta ez geratu. Etxean musika mordo entzuten dut.

**- Eta egoerarik politena?**

Gustora geratzen zarenean, jendearengan islatzen delako aukeratutakoarekin pozik daudela. Musika estilo bat sortzen da horrelako egoeratan.

**- Zer bilatzen duzu, batez ere? Eibarren musikarekin exigitak gara?**

Gustatuko litzaidake gauei aire berri bat ematea, Eibarren musika kultura ez baitugu garatu larregi. Estankatuta gaudela esango nuke: erosoena jartzen da, hau da, komertziala, eta eredu horri jarraitzen diogu gehienetan.

**- Baina, jendea kexatzen da? Badago beste musikarik eskatzen dizutenik?**

Kexatu... gutxi, egia esateko. Baina nabari da gazteek, batez ere, bestelako musika eskatzen dutela, alternatiboagoa.

**- Zure kasuan, nondik jaso duzu informazioa, nondik ikasi?**

Internetik eta lagunekin. Hasiarako urduritasun hura gainditu dut dagoeneko eta gaur egun eroso sentitzen naiz, gauaren arabera hori aldatzen bada ere. Lokalean ere asko ikasi dut, horiko aukera baliatu baitut estiloz aldatzeko eta aberasteko.

**- Zein DJ duzu gustoko? Nazioarte mailako idolorik?**

Gertukoenen artean, Txitxarrron jardundako Imanol debarra. Asko ikasi dut ere Fari, Pantaka, Beñat, Manu eta Bolirekin. Nazioarte mailan, Rickie Hawtin jarraitzen dut aspalditik, house eta tecno esparruan

**- Zein musika mota duzu gustukoena?**

Housea, funkya, elektroa... eta talde alternatiboena.

**- Etorkizunerako asmo edo itxaropenik baduzu?**

Hobbia da, ez lana. Deitzen didate eta hara noa. Mundu konplexua da gauekoa, ezagutu beharrezkoa. Ez dut luzarora begiratzen. Gustatuko litzaidake, esaterako, Bilbao Fever-en jardutea; bestela, bidea egiteko kanpora irten beharra duzu.

etxolajatetxea@hotmail.com  
Erreserbak: 943-207019  
Txirio kale, 1

**etxola**  
**JATETXEA**

Eguneko menua / Karta / Pintxoak  
Enpresa eta taldeentzako aurrekontuak

**Radio Eibar**  
CADENA  
**SER**  
104,0 FM

*Izadi*  
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29



# Liburutegia ere “azterketetan”

**G**aur bertan esango dio agur ikasleentzat pentsatutako ordutegi bereziari Juan San Martin Liburutegiak, hurrengo azterketa sasoi ailegatu arte. Izan ere, ikasleei azterketak prestatzeko orduan bidea ahalik eta gehien leuntzeko, ikasleen premietara egokitutako erritmora moldatzen da liburutegia, horrek egun osoan itxi barik egon beharra ekarri ere. Asteleheneetik barixakura ateak 09.00etan zabaldu eta 20.30ak arte itxi barik egoten dira, Portaleko 1. solairuan, ikasleei behar duten guztia eskaintzeko prest. Eta, bestela urte osoan liburutegira joaten direnek inork baino hobeto dakiten moduan, horrelako sasoiaren norbaiten ipurdiak berotzen ez duen aulkia lortzea ezinezkoa izaten da. Ikasle izan ala ez, berdin da, inguru horretan dabilenak egutegiari begiratu barik ere badaki zer ari den gertatzen: azterketak ailegatu dira!



## Ikasleei egokitu

Badira urte batzuk Juan San Martin Liburutegiak, ikasleen eskaerei erantzuteko asmoz eta beste hainbat tokitan egindakoaren bidetik, azterketa sasoiaren bere ordutegia moldatu eta normalean baino ordu gehiago ematen dituela zabalik, ikasleek talde-lanetarako, ikasten egoteko edo, beste barik, kontsultak egiteko denbora gehiago izan dezaten. Izan ere, ordutegia berezia izan arren, eskaintako zerbitzuak

betikoak, hau da, urteko mar-txa normalean eskaintzen diren berberak izaten dira egun berezi horietan ere.

Hasieran, ikasleei moldatutako ordutegia indarrean ipintzeko erabakia hartu zutenean, asteburuetan ere ordutegi berezi horri jarraituta zabal-tzen zuten liburutegia, eta itxi ere goizeko ordu txikitari ixten jardun zuten sasoi batean, bai-na arduradunek diotenez, “esperientziak erakutsi digu aste-buruetan eta gaueko ordute-gian oso jende gutxi ibiltzen zela eta, beraz, benetako pre-mia edo eskaera egon ezean, ez zuela merezi horri eustea eta benetan erabiltzen den tar-tean zabaldua nahikoa zela”.

Gaur amaitzen den sasoi agurtu arren, maiatzetik uzta-iera bitartean eta udako opor-retatik bueltan, iraileko lehe-nengo egunetan (ikus aldame-neko koadroa) ordutegi trinkoa sartuko da indarrean berriz ere. Ikasleek hori eta gehiago merezi dute eta!



Azterketa sasoiaren ez da liburutegia ixten eguerdian.

## liburutegiko ordutegia

### AZTERKETA SASOIRAKO ORDUTEGI BEREZIA

(09.00etatik 20.30etara)

Urtarrilak 10ean hasi eta otsailaren 4ra arte (astegunetan).

Maiatzak 16an hasi eta uztailearen 8ra arte (astegunetan).

Irailak 1, 2, 5, 6 eta 7an.

### OHIKO ORDUTEGIA

Zapatu eta domeketan, 10.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 20.00etara.

Astegunetan

09.00etatik 13.30etara eta 16.00etatik 20.30etara.

### UDAKO ORDUTEGIA

Ekainak 23an

09.00etatik 13.00etara.

Uztailaren 11tik 15era,

18tik 22ra eta 26tik 29ra

09.00etatik 13.30etara

eta 16.30etatik 19.30etara.

Abuztuaren 1etik 5era

eta 22, 23, 24, 25, 26,

29, 30 eta 31n

09.00etatik 13.30etara.

### ITXITA

Urtarrilak 1, 2 eta 6an.

Apirilak 21etik 25era

(Aste Santua).

Maiatzak 1ean.

Ekainak 24, 25 eta 26an.

Uztailaren, asteburuetan

eta 25ean.

Abuztuaren, 6tik 21era

bitartean eta 27an eta 28an.

Irailak 3, 4, 8, 9, 10, 11,

17 eta 18an.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

## NTRA. SRA. DE BEGOÑA

### EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:  
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behe, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:  
☎ 943 201095 FAX 943 202564



● **tartak**  
● **enkarguak**  
**etxera**

**Bidebarrieta, 28**  
☎ 943 20 79 73

## Dentistak

odontologia  
biologikoa eta orokorra  
terapia neurala

**miren albistegi sojo**

HELBIDE ETA TELEFONO BERRIAK

Errebal, 14  
t. 943 201 721


T. Anitua 16, behea  
Tel. 943 20 73 57

**AMAÑA**

**HORTZ KLINIKA**

**ARAT** Hortz Klinika

Hortz-osasuneko  
profesional talata  
zure zerbitzura



Hortz, konplexu eta  
kompletu harrarain  
Hundelako kontrol...

PREBENTIBARAKU: Tel. 943 20 18 51

**m bista eder**  
dentistak



Inbarrak  
gazte egiten garu

implante eta  
Hortz-Estetikan  
adituak

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75



Monica Martín Fonseca  
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

**calbetón** hagin klinika

Tel. / Faxe: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

**Pedro Etxebarria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17

# OSASUN



**GASTESI**

Hortz-Klinika

Jesus M<sup>a</sup> Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia  
Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuma 943 70 00 90



**IRAZABAL**  
clinica dental

Julian Etxebarria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Implanteak  
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

**BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE**  
**DENTISTA**

Untzaga 5 - 4. .... 943 70 23 85

**EGUNERO**



**invisalign**  
Ikusten ez den ortodontzia

**Ortodontzia**  
**ume eta**  
**helduentzat**

**M<sup>a</sup> Dolores Olaizola Doktorea**

**EIBARKO ZENTRO MEDIKOA**

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)  
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706  
www.mariadoloresolaizola.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

**UNTZAGA**  
**hortz-klinika**

egunero

Untzaga, 2 - 1. Eskuma  
Tfnoa. 943 70 25 92

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**



**ERREHABILITAZIOA**

- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Logopedia
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

*Patronato*  
*Eibarrés*

**Errehabilitazioa**  
**eta Fisioterapia**

ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea

**Urkizu 9 - behean**

**EGUNERO** (08.00 - 19.30)

Tfnoak. - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58  
Faxe - 943 12 03 58

patronatorehabi@terra.es


## Estetika klinika

**abontza**  
clinica estetica

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoak
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

Egunero, 6. behea - Tel.-Fax. 943 906 044  
www.clinica-abontza.com

**Hemen zure tokia**  
**izan nahi baduzu**  
**deitu 943-206776**  
**telefono zenbakira**



# GGDA

## Fisioterapia




**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.  
ARRAQUETA, 20  
T.F.: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**



**FISIOTERAPIA**  
ENENKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia.  
OSTEOPATIA  
NEUROLOGIA  
NEURO-ESTIMULAZIOA  
S. Agustín, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58



- fisioterapia  
- osteopatia  
- errehabilitazioa  
Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA  
Juan Gisasola, 14  
Telefona: 943 12 70 78

## Okulistak



**JOSE ALBERDI**  
ARRATSALDEZ  
San Juan 11 - solainurtea  
943 20 19 82



**Clínica Oftalmológica RECALDE**  
Oftalmología Clínica  
Plaza Barria, 2 - 2º  
Tfnoa.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak



**ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOAK**  
124 kolegiatu zenbakia  
**HELBIDE BERRIA**  
T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
**943 12 14 93**



**BIDEBARRIETA, 48 EIBAR**  
943 203050  
**ERDIKO KALE 54 ARRASATE**  
943, 799746  
**PODOLOGOAK**  
Ereiko Klinikak  
Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



**PODOLOGOAK**  
Maidor Lopez Etxebarria  
Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
Tfnoa. 943 82 04 88  
65 Kolegiatu zbkia.



**PODOLOGO T. ORTOPEDICO**  
Iñaki Rivero Zabaleta  
Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)  
Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA  
----- (Ume eta helduendako) -----  
**Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta**  
- Afasiak - Dislexiak  
- Disfoniak - Hizmoteltasuna  
- Dislaliak - Eskola arazoak  
- Degluzio atipikoa  
T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15  
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

**UME ETA HELDUENDAKO PSIKOLOGIA KABINETEA**  
**Arrate Garitaonandia**  
HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO TRATAMENDUAK  
Bidebarrieta, 27-B (3. atea) 943 20 22 66  
a\_garitaonandia@terra.es

**Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa**  
**Ψ**  
Oscar Mondragon Lili  
Urkizu, 13 - behea  
Telf. 943 206823 eta 686 859023

## Radiologia

**MADINA RADIOLOGIA**  
- Mamografiak  
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)  
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)  
TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak  
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin  
Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857



## ZER BEHAR DA GURASOEN BANAKETAREN OSTEAN SEME-ALABEN ZAINZA PARTEKATUA EZARTZEKO?

Gurasoak dibortziatu ostean edo, ezkontuta ez badaude, banatu ostean, erabaki egin behar da seme-alabak norekin biziko diren. Esan behar da gurasoak euren artean banatu egiten direla, baina seme-alabekiko, euren obligazioak eta eskubideak berdin-berdinak izaten jarraitzen dutela. Banaketak edo dibortzioak ez du guraso izaera aldatzen. Aldatzen dena eguneroko bizimodua da, umeen zaintza, eta hori da dibortzio edo banaketa ostean erabaki behar dena.

Oro har, bi modu daude umeen zaintza antolatzeke: bata, umeak guraso batekin bizitzea eta beste gurasoarentzat umeekin egoteko orduak eta egunak finkatzea. Kasu horretan guraso bakar batek dauka zaintza (zaintza eskusiboa) eta besteak umeekin egoteko eskubidea eta betebeharra. Zaintza eskusiboa bi gurasoek modu adostuan ezar dezakete, edo, adostasunik ezean, epaileak ezarriko du. Zaintza eskusiboa amak zein aitak eskura dezake, legearen aurrean bata ez baitauka, a priori, besteak baino aukera gehiago zaintzaren titular izateko.

Umeen zaintza antolatzeke bigarren modua da zaintza partekatua, zeinetan zaintza bi gurasoen artean banatuko baituten beraiek finkatutako eran. Kasu honetan umeak gurasoekin txandaka bizi dira, txandak modu anitzetan antola daitezkeela: etxez eta gurasoz hiru egunero aldatu, astero aldatu, hilero aldatu, etab., edota umeak etxe bakar batean bizi direla, etxez aldatu gabe, gurasoak izan txandaka etxe horretan biziko direnak.



*Elena Laka*  
abokatua



## ZAINZA PARTEKATUA DUELA URTE GUTXI EZARRITAKO LEGE-NEURRIA DA.

Epaile batek onarpena eman diezaion zaintza partekatuari, Kode Zibilak eskatzen du guraso bien arteko adostasuna egon dadila eta umeentzako ona izan dadila, eta praktikan eskatzen da gurasoen arteko harremana ona izan dadila eta guraso biak gertu bizi daitezela, baldin eta umeak badira etxe bietan txandaka ibiliko direnak. Esan bezala, gurasoen adostasuna ezinbestekoa da. Salbuespen moduan, Kode Zibilak ezartzen du aukera guraso bakar batek eskatuta, Ministeritza Fiskalaren aldeko txostenarekin, ezar dadila zaintza partekatua, ulertu delako umeentzako ona dela. Baina nahiz eta legeak aukera hau eman, praktikan oraindik ez dugu ikusi guraso bat ados ez dagoen zaintza partekatu bat ezarri duen epairik.

Zaintza partekatuak ekartzen du umeak bi gurasoekin biziko direla, gutxi gorabehera denbora berdintsua, eta bi gurasoek izango dutela umeen gaineko eguneroko ardura: umeekin bizi, zaindu, eskolako gorabeherak eraman, medikuarengana eraman, umeen gastuei aurre egin etab. Sarritan zaintza partekatua guraso batzuk aldarrikatzen duten bandera da familiaren etxebizitza erabiltzen segitu ahal izateko banaketaren ondoren. Horretarako, eskatzen dute legez, gurasoen arteko adostasunik gabe, zaintza partekatua ezar dadila lehen aukera moduan, eta ondorioz, umeak etxean bizi direla, izan daitezela gurasoak txandaka biziko direnak etxe horretan umeekin batera.

Umeek ere badaukate zer esanik zaintzaren eztabaidan: gurasoen adostasunik ezean, epaileak entzun egin beharko ditu 12 urtetik gora baldin badaukate, eta baita ere gazteago izanda, nahikoa zentzu baldin badaukate. Umeen zaintza seme-alabek 18 urte betetzen dituztenean bukatzen da, adinez nagusi izate-ara iristen direnean.



Zuzenbideari buruzko edozein zalantza izanez gero, idatzi erredakzioa@etakitto.com helbidera; hurrengo alean zalantza horiek azaltzen saiatuko gara.



**14.170 emakumezko  
13.353 gizonezko**

**27.523  
BIZILAGUN EIBARREN**

**E**ibarrek 27.523 biztanle ditu gaur egun eta, gizonen eta emakumezkoen kopuruak alderatuz, balantzak azken hauen alde egiten du, ia 800 andrazko gehiago daude-eta herrian (14.170 emakume eta 13.353 gizonezko). Bestalde, adinari erreparatzen badiogu, argi ikusiko dugu piramide itxura galdu duela dagoeneko: 18 urtera artekoak 4.092 lagun dira (paretasun ikaragarriekin: 2.047 mutil eta 2.045 neska); adin horretatik 65era 17.238 lagun daude (hor, gainera, gizonezkoak gehiago dira emakumezkoak baino: 8.767, andrak baino ia hirurehun gehiago -8.471 dira azken hauek-); azkenik, 66 urtetik gorakoak -hau da, jubilatua (orain arte behintzat)- 6.193 lagun dira eta hor bai direla gehiago emakumeak gizonen baino: 3.654 / 2.539. Ikusten denez, mila laguneko baino alde gehiagorekin.

#### **EIBARREN 59 HERRIALDE EZBERDINETAKO LAGUNAK DITUGU GURE ARTEAN.**

Atzerritarrak 1.599 dira guztira eta, euren artean, gizonezko gehiago (849) emakumezkoak baino (750). Jatorriz, Marokotik etorritakoak osatzen dute, alde handiz, kopuru handiena, 515 lagunekin; eta, hor ere, gizonak dira nagusi (312), emakumezkoen kopurua 203koa denean (gutxi gorabehera, bost lagunetik: hiru gizonezko eta emakumezko bi).

Marokoren atzetik, Portugal, Kolonbia, Bolivia eta Brasiletik etorritakoak ehun lagunetik gora dira herrialde bakoitzean. Eta kontuan hartzeko moduko kopuruak dira ere ekuadortarrak, pakistandarrak, dominikarrak, perutarrek, errumaniarrak, argentinarrek, txinatarrak eta senegaldarrak.


#### **MAROKO (515)**

Portugal (148)  
Kolonbia (123)  
Bolivia (105)  
Brasil (100)  
Ekuador (70)  
Pakistan (68)  
Dominikar Errepublika (55)  
Peru (55)  
Errumania (37)  
Venezuela (35)  
Argentina (30)  
Txina (27)  
Senegal (25)  
Nikaragua (21)  
Kuba (18)  
Mali (16)  
Algeria (15)  
Italia (15)

Kongo (13)  
Txile (13)  
Frantzia (11)  
Hungaria (9)  
Honduras (8)  
Britainia Handia (7)  
Mexiko (6)  
Bosnia (5)  
Uruguay (5)  
Alemania (4)  
Herbehereak (4)  
Irlanda (4)  
Cabo Verde (3)  
Errusia (3)  
Serbia (3)  
Costa Rica (2)  
Estatu Batuak (2)  
Filipinak (2)  
Montenegro (2)  
Paraguay (2)

Salvador (2)  
Ukraina (2)  
Afganistan (1)  
Australia (1)  
Belgika (1)  
Benin (1)  
Bulgaria (1)  
Egipto (1)  
Eslovenia (1)  
Finlandia (1)  
Ginea Bissau (1)  
Ginea Ekuatoriala (1)  
Grezia (1)  
Kroazia (1)  
Maurizio Irla (1)  
Moldavia (1)  
Nigeria (1)  
Polonia (1)  
Suedia (1)  
Vietnam (1)


*Urtarrilaren 12an kaleratutako datuen arabera, Udal Idazkaritza sailak jakitera eman duenez, 27.523 biztanle ditu Eibarrek gaur egun. Euretatik, 1.599 dira atzerritarrak, hau da, %5'8. Eta, azken hauetatik, ia herena osatzen dute Marokotik etorritakoak. Adin-piramideari begira, bestalde, gaur egun ez da piramidala egia esateko, jaiotze-tasa jaitsi egin delako azken urteotan eta beheko aldean estutu egiten delako. Guztira ia 800 emakume gehiago dago gizonezko baino; hala ere, alde hori nagusien artean egiten du andrazkoen alde, ordura arteko tartean gizonak gehiago direlako: 300 bat lagun.*



## **EUSTAKIO MARTIN URZAINKI ELIZONDO**

*urtarrilaren 25ean hil zen, 76 urterekin*

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.





## 0-3 galtzen joanda, berdinketa areto foballean

**GIPUZKOAKO LIGAKO 1. MAILAKO TALDEAK HIRUNA BERDINDU ZUEN ETXEAN** jokaturako Bar Ignacioren aurkako partiduan, 0-3 galtzen joan eta gero, azken 12 minututan egindako lan bikainari esker. Saillapenean 7. eta 8. postuetan dauden taldeen arteko norgehiagokaren emaitzak ez zuen inor pozik laga, baina eibartarrek azken unean behintzat lortu zuten markagailua itxuratzeari. Atsedendira 0-2koarekin erretiratu ziren talde biak eta, epai-leak asmatutako penaltiarekin, gauzak txarrago jarri zitzaizkion Debabarrenari; azken orduko Ausinen (bitan) eta Jakob-en golek berdinketa eta puntua eman zizkieten. Bihar, 18.00etan, Zurt Taberna hartuko dute Ipuruako kiroldegian.

Kadete mailako taldeak 2-5 galdu zuen Anoetako-arekin eta, emaitza horrekin, saillapeneko 3. postuan kokatzen dira Debabarrenakoak. Asteburuan ez dute partidurik.



## 11nako berdinketa Navarrarekin Orbeako waterpolo partiduan

**URBAT-EK EZ ZION AURPEGIRIK GALDU NAVARRA B TALDEARI** eta, norgehiagoka bikainean, 11na amaitu zen armaginen eta nafarren arteko lehia. Hasi eta berehala, 0-3 aurreratu ziren kanpotarrak; hala ere, etxekoek 9-6koa sartu eta aurreratzea lortu zuten. Gero, batek sartu, besteak erantzun... horrela joan ziren amaierara arte. Eta, segundo batzuren faltan, Zigor Etxebe-

ria ezkerak zutoinera bidali zuen baloia: merezi izan zuen zeozer gehiago, jendearen txaloek adierazi zuten moduan.

Beheko mailetan diharduten Urbatekoei begira, kadeteen taldeak 11-4 galdu zuen Larrainaren igerilekuan, hobekuntza erakutsi arren. Eta Mikel Recio soraluzetarrak 15na berdindu zuen Euskadiko selekzioarekin Aragoiaren aurkako neurketan.

## Katu-Kaleren hobekuntza saskibaloian

**PARTIDU BI IRABAZI DITU JARRAIAN EIBARKO TALDEAK, AZKENA DONOSTIAN** Cafés Aitona B-ri (50-55). Atsedendian ere eibartarrek ziren nagusi (25-29) eta, azken laurdenean galtzen joan baziren ere, azkenean defentsa bikainari esker garaipena ekarri zuten Eibarrera. Jorge Alarcón izan zen saskiratzaile onena, 16 punturekin. Bigarren faseko partidu berri bat jokatu dute Katu-Kalekoek Ipuruan bihar, 18.30etatik aurrera, Oiartzungo Saskilagunak taldearen kontra: Barik eta Urkok baja izaten jarraitzen dute.

Ruibal Alquiler-ek, bestalde, ez darama bide bera eta, 2. laurdenean apurtu zen norgehiagokan, 66-49 galdu zuen Hernaniko Teklan Laser multzoko liderraren aurka. Aste honetan partidu

biri egin beharko diete aurre Ruibalekoek: atzo Zarautzeko Leioak Zast zuten aurkari eta zapatuan Ipuruan, 16.30etan hasita, Irungo Aldabe izango dute aurrean.



## Patxi Usobiagak hernia diskala du

**ESKALADAKO MUNDUKO TXAPELDUNAK ETENALDI LUZEA EGIN BEHARKO DU BERE PRESTAKETAN**, hernia diskala aurkitu baitiote. Sendagileek atsedean hartzea lehentzi dute operazioaren aurrean eta, horrela, Patxi sendatzen ahaleginduko da kirolariaren pasatu behar izan barik. Laz ere hainbat arazo fisiko izan zituen, bere mailarik onena ematea oztopatu ziotenak. Hala ere, kirolari kementsua izan da beti eta lehenbailehen konpetiziora bueltatzea espero du.

## Urkiko infantil mailako nesken ibilbide zuzena



**GARAIPEN BAT BESTEAREN ATZETIK, EZ DU AMAIERARIK** Urki foballeko talde gazteenaren joko eta emaitzaren arteko lotura onuragarriak. Joko elaboratua egin zuten eibartarrek Arizmendi Torrebasoren aurrean eta, Bartzelona handiaren modura, 0-8 nagusi ziren; partidua hemendik aste bira hasiko den bigarren fasea prestatzeko erabili zuten Alberto Lamarinok zuzendutako taldeak. Goleatzaileak, bestalde, Laura (3), Ione eta Cristina (bina) eta Irune izan ziren.



Aranzabal presidentea Juan Domínguez etorri berriarekin aurkezpen egunean.

## Jaen taldeko Espínek Urzelairen tokia hartuko du Eibar FT-an

**NEGUKO FITXAKETAK EGITEKO HILABETEAREN AZKEN EGUNEAN AZKEN JOKALARIA EKARRI ZUEN** Alex Aranzabalen zuzendaritzak. Espín zentrala da bera, Jaen taldeko kapitaina atzo arte eta lesio luzearekin jarraitzen duen Urzelai oñatiarraren tokia hartzera datorrena. Plantilla 21 jokalarik osatzen dute gaur egun: Ibáñez eta Iruretagoiena atezainak, Añibarro, Espín, Gañán, Kijera, Rodríguez eta Valín atzelariak; Albistegi, Garro, Lombráña eta Ros pitobreak; Abaroa, Altuna, Cuevas, Domínguez, García, Lanzarote eta Vincent erdilariak; eta Cascón eta Lago Junior aurrelariak.



## Hierros Anetek ezin du kale egin bihar Unben Baztanekin

**DENBORALDIAREN AMAIERA GERO ETA GERTUAGO, HUTS EGITEKO AUKERAK ERE ORDUAN ETA URRIAGO.** Horregatik, irabazi beharreko partidua du bihar Hierros Anetxe rugbi taldeak, 17.00eta-

tik aurrera, Unben. Saillkapenean atzetik, puntu gutxira, duen Baztan hartuko du. Jubenil mailako taldeak, bestalde, Santanderreko San Roman zelaiaren jokatu du bihar bertako Independientearen aurka.

## Arrate-Alcobendas, gaur 21.00etan Ipuruan

**ARRATE ESKUBALOI TALDEAK ASOBAL LIGARI HELDUKO DIO BERRIRO,** bigarren itzuliaren hasierarekin. Partidu garrantzitsua du aurrean, bere atzetik -puntu bakarreradagoen Alcobendasen aurka jokatu beharko duena: Madrilgo taldeak hainbat aldaketa izan ditu plantilan, diru arazoekin baitago. Horregatik, huts egiteak ondorio latzak izango litzuke Julian Ruizen taldearentzat, mailari eustea kimera bihurtuko bailitzateke. Liga

barik egon diren sasoian, Arratek hiru partidu jokatu ditu (Naturhouse Logroño, Amaya San Antonio eta Valladolid izan dira aurkariak) eta hirurak galdu dute.

Bestalde, gestora bat osatu da eskubaloi kluba aurrera ateratzeko. Irtenbideen bila jardunfo dute Gojko Vucinic bigarren entrena-tzaileak, Ivan escribano jokalaria-ohiak eta Jose Ramon Iriarte, Debabarrena areto-fobal-leko gaur egungo presidentek.

## Aurten ez da Arrateko Auto Igoerarik izango

**ERABAKI HORI HARTU BEHAR IZAN DUTE PROBA ANTOLATZEN DUTEN ESCUDERÍA EIBARKOEK, EGOERAK HORRETARA BULTZATUTA.** Azken urte bietan uztailan jokatu den proba aurten martxoaren 25ean eta 26an zen egitekoa. Babesle garrantzitsuena atzera bota eta gero, antolatzaileek proba nazioartekotu egitea erabaki zuten, horrela laguntasun gehiago jasoko zuelakoan. Europako txapelketarako baliagarria izatea onartu eta gero, handik egun bira ezetza jaso zuten Escudería Eibarkoek. Horrek ekarri du igoera ez egitea erabakitzea, eurek dioten moduan *“40. edizioa berezia izatea nahi dugulako”*.



## J. Agirreren parte hartzea zalantzan


**MENDAROKO PILOTOAK ASTEBURUAN DEBUTATUKO DU** (Italiatik autoarendako piezak sasoiz badatoz), Tarragonako El Vendrell-en, karting modalitateko Kataluniako txapelketarako baliagarria den proban. Euskadiko txapelketan ere izango da gidari gaztea; baina, jauzi kualitatiboa emanez, maila handiko Kataluniakoan parte hartzea erabaki dute. Junior mailako gidariari bere adineko mailak txiki geratu zaizkio eta, urtetik urtera, progresio nabarmena dihardu egiten. Proba horretarako, dena dela, material guztiz berria erabiliko du eta, horrez gain, aurretik probatu gabekoa.



## Pilota afizionatua Astelenan

**KLUB DEPORTIBOKO ORDEZKARIEK UDABERRI TORNEOKO** partidu bi jokatu dituzte gaur Astelenan, 20.15etatik aurrera. Lehenengoan, Ruiz-Larrauri kadete mailako bikoteak Lezoko ordezkariak egingo die aurre; bigarrenetan, bestalde, Unamunzaga-Bengoetxea Eskoriatzako ordezkariak baino gehiago izaten saiatuko dira.

Ermuko gazte honek, ileapaintzaile moduan ez ezik, ikastaroak ematen ere badu esperientzia. Gure ilea nola orraztu eta nola zaindu ikasteko hainbat saio eskainiko ditu ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan: otsailaren 22 eta 24an eta martxoaren 8 eta 10ean eskainiko ditu ordu biko saioak (18.00etatik 20.00etara). Otsailaren 15era arte dago izena emateko aukera.



**OLAIA MARTIN, ileapaintzailea:**

## "Euskaldunok ez gara ausartak gure ilearekin"

**- Zer ikasiko dute ikastarora datozenek?**

Lehenengo egunean oinarriko gauzak irakatsiko ditut: plantxak nola erabili, flekilloa nola moztu, ilea nola sikatu ondo, ile-lehorgailua nola erabili edota etxean nola eman ilerako tintea. Lehenengo saioan parte hartzaileei galde-tuko diet ia zer nahiko luketen ikasi eta horren arabera izango dira gainontzeko saioak, parte-hartzaileen behar eta nahien arabera.

**- Mutilak holakoetan parte hartzera animatzen dira?**

Ba egia esan orain arte ez dut ikastaroetan mutilik izan. Neskak soilik etorri izan dira, baina mutilen bat animatzen bada, ongi etorri!

**- Jendearentzat zergatik da hain garrantzitsua ilea ondo edukitzea?**

Segurtasuna ematen digu ilea ondo izateak. Ileapaindegitik gustora irteenez gero, autoestimak ere gora egiten du,

baina aldiz, ilea nola utzi diguten gustatzen ez bazaigu, egia da "lurjota" gera gaitzkeela.

**- Euskaldunok zaintzen du-gu gure ilea? Ondo orrazten gara?**

Orain bai, baina orain dela urte batzuk ez genuen horrenbeste zaintzen. Hala ere euskaldunok gure ilearekin ez gara bat ere ausartak, nahiko klasikoak gara orrazterako orduan, zaila egiten zaigu gauza moderno edo arraroetara jauzi egitea.

**- Zein orrazkera mota eramango da datozen hilabeteotan?**

Ile motza asko eramango da eta baita oso flekillo luzea eta zuzena ere.

**- Zer eskatzen du jendeak ileapaindegian?**

Orain dela urte batzuk, neskek, Meg Ryan aktorearen moduko ilea eskatzen zuten; mutilek aldiz, futbolariak dituzte eredu ilea modu batean edo bestean moztetakoan.




Sostoako partaideak Ibarcurutzeko Kasinoaren aurrean kantatzen. / ARTXIBOA

## Santa Ageda batzen, Sostoarekin

**SOSTOA ABESBATZAK, URTEROKO OHITURARI JARRAITUTA**, gaur egingo du Santa Agedaren omenezko kalejira, 19.00etatik aurrera: Untzagan elkartu eta handik kalejirari ekingo diote (Torbio Etxebarria, Fermin Calbeton, Ibarcurutze eta herriko erdialdeko beste hainbat kaletan ibiliko dira). Urkizun amaituko dute ibilbidea.

## Argazkiak tabernetan otsailean ere

**OTSAILA AMAITU BITARTEAN ETA HILEROKO MARTXARI JARRAITUTA**, hainbat argazkilariren lanak herriko tabernetan ikusteko aukera eskainiko digute Klub Deportiboko Argazkilaritza Batzordekoek antolatutako erakusketek. Portalea tabernan José Luis Irigoien-en "India" izenburukoa egongo da martxan, Klub Deportiboko tabernan Alejandro Martínez Acin-en argazkiekin osatutakoa eta El Ambigü tabernan, berriz, Rafa Herreroen "Paisajes mínimos" izenburukoa.



## Umeendako antzezlanaren Gorakadarekin

**HILAREN 19-AN, 17.00-ETAN HASIKO DA GORAKADA ANTZERKI TALDEAREN** umeendako antzezkizuna: "Ogro Txikia" (4 euro). Agurtzane Intxaurragak zuzendutako antzezlanaren Suzanne Lebeau-k sortutako istorioan oinarritzen da: bere senari eta desio basatiei aurre egin ahal izateko hiru

proba gaintu beharko dituen ogro txikiaren gorabeherak kontatuko dituzte Iñake Iraxtorza, Aritz Rodríguez eta Javi Tirado aktoreek. 6 urtetik gorako umeentzat pentsatutako ikuskizuna da.





Felipe Dirksen-ek XVII. mende hasieran margotutako koadroa Museoan dago ikusgai.

## Artelekuko Xabier Martiarenaren hitzaldia hilaren 10ean

**DATORREN ASTEAN, EGUENEAN, XABIER MARTIARENAREN ARTELEKUKO ZAHARBERRITZAILEAK HITZALDIA EMANGO DU** Portalean, 19.00etatik aurrera, Eibarko Armagintzaren Museoak antolatutako ekitaldian. Hitzaldian "Ibarra Familiako Zalduna" erretratuaren historiaren inguruan eta margolanaren zaharberritze lanei buruz egingo du berba. Ibarra familia gure herriko boteretsuenetakoa izan zen eta hitzaldiaren ardatza izango den koadroa Portalean, 5. pisuan dagoen

Museoan dago ikusgai, "Bizimodua, merkataritza eta gizarte" gelan. Koadroa oso hondatuta zegoen, baina urtebetez margolana zaharberritzen eman ondoren berriz ere ikus-teko moduan laga dute. Koadroa jatorri flandiarreko Felipe Dirksen-ek margotu zuen, 1628. urte inguruan, eta artistak egindako erretratoen artean kontserbatzen den bakarreneretakoa da. Sasoiako modari jarraituta, Barroko estiloko margoa da, "a la española" (gorputz osoko erretratoa, Velázquez-en lanen estilokoa).


## Disko jartzaileak borrokan

**GAUR GAUEAN, 23.00-ETATIK AURRERA DJ FARY ETA DJ JOKIN SKYWALKER** aurrez aurre, lehia bizian ikusi eta entzuteko aukera egongo da Karrika tabernan, antolatzailerak "electro Dj-en duelua" modura bataiatu duten saioan. Euren berbetan, "aurreko hila-betean Dj Fari etorri behar zen gurera, saioa eskaintzera, baina azken uneko kontuak medio, ezin izan zen saiorik egin

*eta emanaldia bertan behera laga behar izan genuen. Hala ere, oraingo honetan ez da horrelakorik gertatuko eta, gainera, aurretik pentsatuta zegoena baino saio hobea eskainiko dute Dj Faryk berak eta berarekin batera egongo diren Jokin Skywalkerrek eta Txukik. Beno, batera baino gehiago, kontra esan beharko genuke, sesioa dueloa bailitzan planteatuko dute-eta".*



## Zaharberritutako argazkien erakusketa amaitzean



**UNTZAGA ZENTRO SOZIALEAN MARTXAN DAGOEN "OROIPEN ARTEAN-ENTRE RECUERDOS"** I. Argazki Zaharberrikuntzaren erakusketak domekan itxiko ditu ateak. Einer Rodríguez Ponceren lanak oraindik ikusi barik dituzuenontzat, asteburuan izango duzue horretarako azken aukera, gaur 19.15etatik 21.15etara eta bihar eta etzi, berriz, 12.00etatik 14.00etara.

## laburrak

### GURASOENDAKO IKASTAROA

Haurren garapenaren ezaugarriak lantzeko ikastaroa antolatu du Gizartekintzak, 2 eta 7 urte bitarteko haurren gurasoentzat. Ordu biko lau saio izango dira (otsailak 22 eta 24 eta martxoak 1 eta 3), 18.00etatik 20.00etara Portalean eta klaseak Baikara Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioak emango ditu (euskeraz). Interesa dutenek Pegoran egin beharko dute eskaera, gaur hasi eta otsailaren 16a bitartean.

### SAN BALENTIN BEHEKO TOKIAN

Karmen kaleko Beheko Tokia jubilatutako etxeak jaialdi berezia antolatzen dihardu San Balentin ospatzeko: ezkondu zirela 45 urte aurretik betetzen duten bikoteei oparia emango diete, baina horretarako aurretik zuzendaritzakoei esan beharko diete. Hilaren 14ko jai 18.00etan hasiko da eta, besteak beste txokolate-jana egingo da. Gainera, ordurako Gabonetako otarraren irabazlerik agertzen ez bada, horren zozketa egiteko asmoa dute.

### EIBARKO ASANBLEA SANTAESKEAN

Gaur, 19.00etan, Armeria Eskolan hasita Eibarko Asanbleako gazteek kalejirari ekingo diote, Santa Agedari koplak abesteko. Ohiturari jarraituta, dirua eskatzen ibiliko dira eta jasotakoa hainbat proiektu aurrera atera ahal izateko erabiliko dutela aurreratu dute.

## ARANTZA URIGUEN ARANBURU

2011ko urtarrilaren 26an hil zen

**Bere sendiak bihotzez ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak eta hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## Eibartarrak Argia Sarietan

**ASTEBURUAN BANATU ZITUZTEN EUSKARAZKO KOMUNIKAZIOAN NABARMENDU DIRENEI ESKAINITAKO** Argia Sariak eta aurtengo sarituen artean eibartarren ordezkari zabalak egon da. Batetik, Internet alorreko saria Aho-tsak.com webguneak eraman du. Badihardugu Euskara Elkartearen proiektuaren helburua Euskal Herriko ahazko ondarea eta herri-hizkerak biltzea eta hedatzea da eta, oinarri metodologikoa ezartzeko orduan, Eibarren 2000. urtean Egoibarra batzordearen eskutik abiatutako Eibartarren Ahotan proiektuari jarraitu zioten. Saria jasotzen Asier Sarasua eta Aintzane Agirrebeña izan ziren. Eta, bestetik, telebista alorreko saria jasotzen beste eibartar bat egon zen: luzaroan Euskal Telebistarentzat dokumentalak eta bestelakoak sortzen diharduen Iker Trebiño. "Orain" dokumental saioak Euskal Herriko sortzaileen lana erakusteko 6-8 minutuko dokumental laburrak

eskaintzen ditu. Deluxe etxeak ETBrentzat egindako lanei esker musikari, disenatzaile, artista, argazkilaria eta beste hainbat gututik ezagutzeko aukera eskaini zaie ikus-entzuleei.

Sari-banaketa ekitaldia Usurbilgo Atxega Jauregia jatetxean ospatu zen eta, aipatutakoekin batera, beste alor batzuetan saritutakoak egon ziren: prentsa idatzian Gaztezulo hila-betekariak eraman du saria, irratian Gaztea-ko "Ekaitz perfektua" programak eta publizitatean, berriz, Donostiako Udala-ren "Nik ere euskaraz" kanpainak.




Ahotsak.com eta ETB3ko "Orain" dokumental saioa saritu dituzte, besteak beste.



Hemendik astebetera, hilaren 11n, eskainiko du bere azken lana Golden Apple Quartet-ek.

## Golden Apple Quartet zuribeltzean

**GOLDEN APPLE QUARTET TALDEA OSATZEN DUTEN** Eduardo Errondosoro, Loyola Garmendia, Kike Ochoa eta Manuel Romano Coliseoan izango dira hilaren 11n, Patxi Barcoren zuzendaritzapean eskaintzen diharduten ikuskizun berriarekin: "En blanco y negro". Taularatuko duten ikuskizunak, ohikoari jarraituz, antzerkiko elementuak eta zuzeneko abestiak uztartuko ditu. Istorioaren ardatza, berriz, luzaroan galduta egon ondoren, ganbaran agertutako kutxa zaharrak eta bertan gordetako objektuek osatzen dute. Sarrerak 15 eurotan erosteko moduan ipini dituzte, interneten ([www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)) Servikutxan edo Telekutxan (943001200). Horrez gain, Coliseoko lehiatilan barixaku, zapatu, domeka eta astelehentean 19.00etatik 20.00etara edo emanaldi egunetan ordu bete lehenago salgai egongo dira.



## Ismael Iglesias Portalean

**HILAREN 13-RA ARTE EGONGO DA ISMAEL IGLESIAS ARTISTA DURANGARRAREN "MY WAY, NO WAY, ANYWAY"** erakusketa ikusteko aukera, Portalean, ohiko ordutegiaren barruan: martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara. Erakusketa hori agurtu eta hilaren 18an, berriz Izaskun Alvarez-Gainzak hartuko dio erreleboa, "Graphique et Couleur" izenburuko proiektuarekin.

## EUSKARAREN

**EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ ELKARTEAK ANTOLATUTAKO MANIFESTAZIOA.** Euskaldunak eta Euskal Herriak burujabe behar duela aldarrikatzeko asmoa dute otsailaren 12ko Donostiako manifestazioan: zapatu horretan hasiko da, 17.00etan, Bulebarretik. Euskalgintzaren arloko hainbat lagun ezagunek egin zuten bat Donostiako Miramar jauregian urtarrilaren 29an egindako deialdiarekin, bertan *Sasi guztien gainetik euskaldun eta burujabe* manifestua irakurri. Euskaldun izateagatik "harro" behar dutela euskaldunek, egunero erakutsi behar dutela hori, euskarak lehenatasuneko estatusa behar duela eta, horretarako, Euskal Herriak burujabe behar duela diote antolatzaileek. Eragileek, agiria eta manifestazioa babesteaz gain, hainbat ekarpen egin dituzte eta "aktibatzer" deitu. Martxaren ostean Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegi" omeneko dute, urteetan euskararen alde egindako lana eskertuz. Manifestua irakurri eta harekin bat egin nahi izanez gero, [euskalherrianeuskaraz.org](http://euskalherrianeuskaraz.org) webgunera jo daiteke.


## TXOKOA

# laztanak emoten...


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, IÑAKI Ferreiro, lazтана hillaren 7xan urtiak egingo dozuz-eta. Laister egongo gara barriz elkarrekin. Muxu haundi bat.



Zorionak, JULEN, bixar urtebete egingo dozu-eta. Etxeko guztien partez.





Zorionak, JUNE, bixar hiru urte beteko dozuz-eta. Famelixaren partez.




Zorionak, NAIA NILI, domekan bost urte egin zenduaz-eta. Muxu haundixa aitaxo eta amatxoren partez.



Zorionak, AITXITXA eta AMAMA, hillaren 6xan eta 13an urtiak egingo dozuezelako. Muxu haundi bana seme, erreñi eta illoben partez.




Zorionak, LARRAITZ, domekan bost urte beteko dozuz-eta. Ondo pasau asteburuko ospakizunetan. Famelixaren partez.




Zorionak, EKAIN Isasmendi Jauregi, domekan lau urte egingo dozuz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, amama ANTXONI, domekan urtiak betetzen dozuezelako. Muxu asko famelixaren partez.



Zorionak, DINBI eta DANBA! Gero eta formal eta alaixaguak... gatzizenak aldau biharko doguz. Martitzenian bost urte!!! Ondo pasau eta laztan bana. Etxekuen partez.



Zorionak, IZARO eta PERU, sei urte bete dozuezelako. Patxo haundi bana famelixa guztien partez.

## zinea Coliseoan

**4an: 22.30**  
**5ean: 17.00/19.45/22.30**  
**6an: 17.00/19.30**  
**7an: 20.30**

### "Amor y otras drogas"

Zuzendaria: **Edward Zwick**  
Aktoreak: **Anne Hathaway, Jake Gyllenhaal, Oliver Platt, Hank Azaria**



Jamie elektronika arloko saltzailea enpresatik kaleratuko dute neska erakargarri guztiekin oheratzen delako. Farmazia arloan hasiko da lanean eta, bisita batean, Parkinson gaitza duen Maggie ezagutuko du. Amodioa izango da drogarik onena.

**4an: 22.30**  
**5ean: 17.00/19.45/22.30**  
**6an: 17.00/19.30**  
**7an: 20.30**

### "RED"

Zuzendaria: **R.Schwentke**  
Aktoreak: **Bruce Willis, John Malkovich, Mary-Louise Parker, Morgan Freeman**



Frank Moses agente sekretua lanera bueltatuko da berriro bera hiltzen saiatzen direnean. Baina ez da bakarrik bueltatuko eta bere betiko taldea berreskuratuko du, beste hiru lagunekin izen eta ekimen handiko laukotea osatuz justiziaren bila.

**4an: 22.30**  
**5ean: 17.00/19.45/22.30**  
**6an: 17.00/19.30**  
**7an: 20.30**

### "Enredados" 3D

Zuzendaria: **Byron Howard**  
Pertsonaiak: **Rapunzel (Mandy Moore), Madre Gothel (Donna Murphy), Flynn Rider (Zachary)**



Flynn Rider erresumako gaizkile jarraituena dorre misteriotsu batean ezkatutako da eta bertan dagoen 21 metroko luzerako urrezko adatsa duen Rapunzel nerabea bahituko du. Bien arteko paktua sinatuko dute eta trabesia zoragarriari ekingo diote.

## HILDAKOAK

- Miguel De Luis Fernández. 87 urte. 2010-X-2.
- Victoriana Gaztañaga Esnaola. 92 urte. 2011-I-25.
- Francisca Arrillaga Arrillaga. 82 urte. 2011-I-26.
- Camilo Vázquez Losada. 55 urte. 2011-I-28.
- Lorenzo Caballero Bodega. 84 urte. 2011-I-29.
- Juan Jose Telleria Iriondo. 69 urte. 2011-I-30.
- Lucio Barrenetxea Lizundia. 89 urte. 2011-II-1.
- Javier Zubiaurre Ezenarro. 80 urte. 2011-II-2.

## JAIOTAKOAK

- Erik Fernández Ferrera. 2011-I-22.
- Nora Guerra Aizpun. 2011-I-27.
- Noah Garitagoitia Arias. 2011-I-29.

horoskopoa

**ARIES**

Ahalegindu zaitez eta izan samurragoa. Aldamenekoek eskertuko dute, azkenaldian zakarregia zaudelako, batez ere.

**TAURUS**

Aspaldiko gorrotoek gaur egungo harremanetan traba egiten dizute eta hori ez da sana. Kontu zaharrak dira; ahaztu egin beharko zenituzke.

**GEMINI**

Zure atzetik dabilen horren besoetan eroriko zara uste baino lehen. Orain gogor-gogorra zaude, baina azkenean bigunduko zara eta akabo!

**CANCER**

Datozen egunotan estresa izango duzu etsairik nagusiena. Badakit ez dela erraza une honetan gauzak lasaiago hartzea, baina ahalegindu.

**LEO**

Lasaaaaiiii!! Egunotan dituzun tristura eta nekea laster pasatuko zaizkizu. Arazoa da besteek baino denbora gehiago beharko duzula pasatzeko.

**VIRGO**

Asteburu bikaina duzu aurretik, lagun. Hainbeste mimoz antolatutako "hori" borobil irtengo zaizu. Egon lasai, dena kontrolatuta dago-eta.

**LIBRA**

Sasoi honetan balantzea egiteko ordua da. Ahaztu onak izan ez diren uneak eta, bestalde, heldu gogor merezi izan duten beste horiei.

**SCORPIUS**

Hori da, hori, nerbioa! Ezin zara geldirik egon. Danari baietz esan behar hori... Badakizu zer egin: erlaxatu eta zure burua zaindu.

**SAGITTARIUS**

Non arraio bizi zara? Jaitsi behingoz lurrera, gauza mordoa galtzen ari zara-eta. Extralurtarra dirudizu; itxuraz ere hobetuko bazenu, hobe!

**CAPRICORNIUS**

Eskaini denbora gehiago aisialdiari. Lanak irentsi egingo zaitu eta hori ez da txantxetako. Badirudi-eta lanerako bakarrik bizi zarela.

**AQUARIUS**

Agenda topera duzu; baina, benetan uste duzu apuntatuta dituzun gauza guztiak merezi dutela? Egin benetan nahi duzuna, mareatu barik.

**PISCIS**

Espero duzun oparia jasoko baduzu ere, poztasun handiena aspaldian ikusi ez duzun lagun batek emango dizu. Materialista ez zaren seinale!

**Barixakua 4**

**SANTA AGEDA**

**19.00.-** Santa Ageda Batzen. Sostoa abesbatzaren kalejira.

**KONTZERTUA**

**23.00.-** Electro DJ-en duelua: DJ Fary vs. Jokin Skywalker. Karrika tabernan.

**Zapatua 5**

**MENDI IBILALDIA**

**10.00.-** Usartzako aparkalekutik abiatuta, Kalamua-Garagoitxi-Akondia haur eta gurasoentzako ibilaldia. Akondian buzo berria ipiniko da. Klub Deportiboak antolatuta.



salgai



**SARRERAK**

**ANTZERKIA:**

"Ogro txikia" (Gorakada). Otsailak 19, 17.00etan.

**Astelehena 7**

**IKASTEN**

**16.00.-** Sendabelarren Foroa: "Udaberrilorea". Portalean.

**Martitzena 8**

**HITZALDIA**

**19.30.-** "Komunikabideen etika" hitzaldia, Juan Pagolaren eskutik. Antolatzailea: Eibarko parrokiak eta EIS-Justizia eta Bakea. Portalean (areto nagusian).

**Eguaztena 9**

**IKASTEN**

**10.00.-** "Aplicación de las matemáticas", Enrique Zuazuaren eskutik. Armeria Eskolan.  
**10.15.-** Mendi-ibilaldia: Soraluze-Karakate. Irteera Ego Gaintetik (autobus geltokitik).

**IKASTAROA**

**19.00.-** ...eta kitto! Euskara Elkarateak antolatutako makrobiotika ikastaroa. Portalean (sukaldean).

**MUSIKA:**

**Golden Apple Quartet.** Otsailak 11, 20.30.  
**II. Eibarko Gazteen Piano Jaialdia.** Otsailak 13, 12.30.  
**Voces y Cuerdas.** Otsailak 26, 19.00.

**Eguena 10**

**IKASTEN**

**10.00.-** Filo-aula (filosofia), Marisa Iglesiasen eskutik. Armeria Eskolan.  
**19.30.-** Kaleetan Kantuz-erako entsegua. San Andres elizako lokalean.

**EGO-IBAR ZINE KLUBA**

**17.30 eta 21.00.-** "Honeymoon" (Zuz: Goran Paskaljevic). Sarrera: euro bi. Hezkuntza Esparruan.



**ODOL ATERATZEA**

**18.30.-** Odol-emaileentzat hitzordua, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartean (Pagaegi, 3).

**IKASTAROA**

**19.00.-** ...eta kitto! Euskara Elkarateak antolatutako makrobiotika ikastaroa. Portalean (sukaldean).

**HITZALDIA**

**19.00.-** Ibarra familiako zaldunaren erretratuari buruzko hitzaldia, Xabier Martiarenaren eskutik. Portalean (areto nagusian).

SUDOKUA

								1
	1	6						
	4	8	3		5			
		2			6			9
	3	1		8		6	5	
8			4			3		
			6		4	2	3	
						4	7	
7								

DENBORAPASAK

4	7	8	2	6	3	5	1	9
3	5	9	8	1	4	2	7	6
1	2	6	5	9	7	3	4	8
7	9	1	3	2	6	8	5	4
5	4	2	1	7	8	6	9	3
6	8	3	9	4	5	7	2	1
2	1	7	6	8	9	4	3	5
9	6	5	4	3	2	1	8	7
8	3	4	7	5	1	9	6	2

AURREKOAREN EMATZA





## erakusketak

- Otsailaren 6ra arte  
**“OROIPEN ARTEAN”** I. Argazki Zaharberrikuntza-  
 ren Erakusketa, Einer Rodríguez Ponce-ren lanekin. *Un-  
 tza Zentro Soziallean* (erakusketa aretoan).
- Otsailaren 13ra arte  
**“MY WAY, NO WAY, ANYWAY”** Ismael  
 Iglesias-en irudi erakusketa. *Portalean*.
- Otsailaren 28ra arte  
**ALEJANDRO MARTÍNEZ ACIN**-en argazki  
 erakusketa. *Depor tabernan*.
- JOSE LUIS IRIGOIEN**-en “India” argazki erakusketa.  
*Portalea tabernan*.
- RAFA HERRERO**-ren “Paisajes mínimos” argazki  
 erakusketa. *El Ambigú tabernan*.
- FERNANDO BEORLEGI**-ren “Gogoaren pintzelkada  
 garratzak” erakusketa. Lizarrako Gustavo de Maeztu  
 museoa (martitzenetik zapatuta 11.00-13.00 eta  
 17.00-19.00; jai-egunetan, 11.00-19.00).
- Otsailaren 8tik 28ra arte  
**PEIO AGIRRE**-en argazki erakusketa. *Karrika  
 tabernan*.

## lehiaketak

- **Esaera zaharren lehiaketa.**  
 Lanak entregatzea eta informazioa: *Otsailaren 11ra arte*,  
 AEK Euskaltegia (eibar@aeak.org) edo Udal Euskaltegia  
 (euskaltegiaeibar@telefonica.net)
- **Industriagintza V. Argazki lehiaketa.**  
 Informazioa eta lanak entregatzea: *Otsailaren 25era  
 arte*, Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkartearen.
- **XIV. Eguen Zuri Argazki lehiaketa.**  
 Aratosteekin lotutako argazki-lehiaketa. Lanak  
 entregatzea eta informazioa: *Apirilaren 5era arte*,  
 arrate.kultu@eibar.org edo 943202299 zenbakia.
- **Ixuako Pasua - Valenciaga Memoriala.**  
 Apirilaren 3ko txirindularitza lasterketako argazki  
 lehiaketa. Lanak entregatzea eta informazioa:  
*Maiatzaren 6ra arte*, Eibarko Txirindularien Elkartearen  
 (Pagaegi, 3 / ccc@clubciclistaeibarres.org).

## farmaziak

- 4, barixakua**  
 EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)  
 GAUEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)
- 5, zapatua**  
 EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
 GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- 6, domeka**  
 EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)  
 GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 7, astelehena**  
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
 GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 8, martitzena**  
 EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
 GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 9, eguaztena**  
 EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
 GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 10, eguena**  
 EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
 GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 11, barixakua**  
 EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)  
 GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

## ikastaroak

- **Tai Chi Chi Kung (arnasketa eta kontzentrazioa lantzen).**  
 Non eta noiz: *Otsailaren 18tik urriaren  
 28ra arte*, barixakuetan 16.30etatik  
 18.00etara (36 ordu) Ugan Klubean.  
 Informazioa: toki guztiak bete arte,  
 www.kutxasocial.net helbidean edo  
 902540040 telefonoan (astelehenetik  
 barixakura, 08.00etatik 14.30etara).
- **Ileapaindegi ikastaroa.**  
 Noiz eta non: *Otsailak 22 eta 24*,  
 19.00etan ...eta kitto!-n (Urkizu, 11).  
 Informazioa: Otsailaren 3tik 15era,  
 ...eta kitto!-n (943200918).  
 10 euro (...eta kitto!-ko bazkide eta  
 mintzalagunentzat doan).

- **Haurren garapena.**  
 Norentzat: 2-7 urte bitarteko seme-  
 alaben gurasoentzat. Non eta noiz:  
*Otsailak 22, 24 eta martxoak 1 eta 3*,  
 18.00etatik 20.00etara, Portalean.  
 Informazioa eta izen-ematea: Pegoran,  
 otsailaren 4tik 16ra.

## telefono jakingarriak

SOS deiak .....	112
Pegora .....	010
Udaletxea .....	943 70 84 00
Portalea .....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB .....	943 20 38 43
Epaitegia .....	943 03 34 00
Iberdrola .....	901 20 20 20
Naturgas .....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia .....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza .....	943 53 17 00
Eusko Tren .....	902 54 32 10
Pesa .....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00eta-  
 tik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30eta-  
 ra orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik  
 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30,  
 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DO-  
 NOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik  
 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 18.30etara  
 orduro, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00,  
 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00.  
 Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro,  
 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak:  
 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40-  
 etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegu-  
 nak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta  
 jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik  
 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta  
 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.  
**GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30-  
 etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegu-  
 nak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta  
 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** La-  
 neguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegu-  
 nak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRA-  
 TE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30,  
 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta  
 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EI-  
 BAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak:  
 12.30 eta 19.30.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta  
 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak:  
 07.00etatik 21.00etara orduro. Jaiegunak:  
 08.00etatik 21.00etara orduro. **MENDARO-EIBAR.**  
 Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta  
 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45eta-  
 ra orduro eta 21.55.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik  
 22.15etara orduro, 10.55 eta 21.55. Lanegunak:  
 baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero:  
 07.47etatik 20.47etara orduro, 9.20 eta 20.20. La-  
 negunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13-  
 etara orduro, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita  
 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57eta-  
 tik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak:  
 baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Juan Gisasola 5ean (4. A). Sukaldea, hiru gela, egongela, komuna eta despentsa. Igo-gailua eta fatxada berriztuak. Tel. 605-838562.

– Legarren pisua salgai. 70 m<sup>2</sup>. Terraza handia (hego alderantz). Oso argitsua. 232.000 euro. Tel. 605-730131.

### 1.2. Errentan

– Eibarren edo inguruan pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 693-950032.

– Pisua hartuko genuke alokairuan Eibarren. Tel. 678-097247.

– Eibarren edo inguruan pisua hartuko nuke alokairuan. Txikia, lagun batentzako. Tel. 609-918803.

– 2/3 logelako etxebizitza hartuko nuke alokairuan. Tel. 618-877901.

## 3. Lokalak

### 2.1. Salgai

– Txomon garaje itxia salgai. 36.000 euro. Tel. 644-403759.

### 3.2. Errentan

– Lokal komertziala alokagai Sostoaarren 17an. 18 m<sup>2</sup>. Tel. 669-276773.

– San Andres pasealekuan garajea alokagai. 7 m<sup>2</sup>ko trasteroarekin. Tel. 943-120308.

– Lokala alokagai Eibarko erdialdean. 70 m<sup>2</sup>. Komuna eta barrarekin. 18 urteik gorako gazteentzat modukoa. Tel. 679-425467.

– Lokala alokagai Amañan. 180 m<sup>2</sup>. Argitsua eta ibilgailuarentzat sarrera onarekin. Tel. 605-771570.

– Lokala alokagai Ibarburutze 4an, iturriaren parean. 200 m<sup>2</sup>. Tel. 609-918803.

– Garajea alokagai (marra) Untzagan, Txaltza-Zelai azpian. Tel. 658-339709.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko Mendaroko ospitalean edo etxeetan. Tel. 638-249775.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (Mendaron) eta garbiketa lanetarako. Tel. 608-147559.

– Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko Mendaroko. Tel. 688-884746.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

### 1.2. Errentan

### 1.3. Konpartitzeko

### 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

### 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

### 3.2. Errentan

– Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 673-919233.

– Emakumea eskaintzen da arratsalde eta asteburuetan nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 676-035738.

– Emakumea eskaintzen da asteburuetan edo gaez nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 666-771151.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Interna edo externa. Tel. 634-007292.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari laguntzaile jarduteko. Tel. 610-188644.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pintore laguntzaile jarduteko. Tel. 627-159645.

– Mutila eskaintzen da sukaldari laguntzaile edo kamarero jarduteko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 696-450343.

– Mutila eskaintzen da sukaldari laguntzaile edo kamarero jarduteko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 649-086057.

– Mutila eskaintzen da sukaldari laguntzaile edo kamarero jarduteko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 648-716291.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Interna edo orduka. Tel. 617-981037.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 608-820954.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna edo orduka. Tel. 630-365137.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 671-343612 eta 943-531931.

– Mutila eskaintzen da txofer edo igeltsero-laguntzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 671-343612 eta 943-531931.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

### 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

### 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

### 6.2. Eman

### 6.3. Galdu/Aurkitu

### 6.4. Bestelakoak

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatria ikasketekin. Tel. 662-638500.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 610-545505.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka. Tel. 697-735046.

– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko eta tabernak edo soziedadek garbitzeko. Tel. 638-731827.

– Neska eskaintzen da txakurrak paseatzeko. Tel. 678-097247.

– Neska arduratsua eskaintzen etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 671-329852 eta 943-029329.

– Neska arduratsua eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 690-154754.

– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanetarako. Tel. 687-114707.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 678-972690.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 669-068439.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 680-956954.

– Neska eskaintzen da jornada erdiz garbiketa lanak egiteko. Tel. 618-734000.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka zein interna. Tel. 652-587259.

– Neska arduratsua eskaintzen da asteburuetan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 681-322442.

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, sukaldari-laguntzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 608-406751.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 685-765340.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 663-682150.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

– Alemanierazko irakaslea behar da. Tel. 943-176632.

### 5.2. Eskaintzak

– Ingeles irakaslea eskaintzen da umei irakasteko. Tel. 645-488483.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Ohea (1'50ekoa, oheburukoa eta somierrarekin), gau-mahai bi eta egongelarako marketeria-mahaia salgai. Lau aulki tapizatu opari. Tel. 670-593605.

– Jaunartzeko jantzia (marineroa) salgai. 14 tallakoa. Behin erabilita. Merkea. Tel. 630-686469.

– Bizikleta estatikoa salgai. Oso berria. Tel. 670-793312 eta 943-127161.

– Bizikleta bi salgai. 6-12 urte bitarteko umeentzat. 100 euro biak. Deitu 21.00etatik aurrera. Tel. 943-204238.

– Fagor labea salgai. 595x592x529 mm. Tel. 669-245653.

– Autoarendako segurtasun aulkia (9-25 kilo) eta egurrezko trona salgai. Merkea. Tel. 617-256466.

– Altxagailu elektriko artikulatua eslingarekin eta barandilla tolesgarri pare salgai. Egoera onean. Tel. 943-120219 eta 659-208746.

### 6.2. Eman

– Maxi Coxi kotxe-kapota, aulkia eta sehaska emango nituzke. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 635-729625.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Ezkontz-eraztuna galdu zen hilaren 20an Mendaroko ospitalean. Sarituko da. Tel. 646-805546.

– Andrazkoaren artilezko eskularru beltzak aurkitu ziren Barakaldo kalean hilaren 23an. Tel. 675-712886.


### 6.4. Bestelakoak

– Eibarko lagun bik lagunak nahi dituzte irtezeko. Tel. 669-911573 eta 658-732727.

# Inoiz ez da azkarregi heziketarik onena jasotzeko.

Ehun urte baino gehiagotan Aldatze Eibarko Heziketan emaitzarik ezin da. Gure inguruko beharrei erantzutea, gaurkotzea -pedagogia, hizkuntzak, teknologia berriak, EFQM...- izan dira eta diru oraindik gure lanaren oinarriak.

**ATEAK ZABALIK**  
**otsailak 5**  
**larunbata**  
11.00etatik  
13.00etara



HEZIKETA INTEGRALA ETA KALITATEKOROA KRISTAU HUMANISAMONAN OINARRITUTA

ALDATZE IKASTETXEA MENDE OSO BAT HEZTEN

ELEBRIDUN IKASTETXEA

3 URTEETIK 18RA BITARTERKO IKASLE NESKA-MUTILAK

AZKEN 15 URTEETAN SELEKTIBITATEKO FROGA 40.000€ GAINDITU DITUZTELARIK

IKASLEEN BAHARAKO JARDUA IPENA

ESKOLAKO ETA LANERAKO ORDUTEGIAR BATERAGARRI EGITERO ZERBITZU ESKAINTZA

*aldatze*




**ALDATZE**

Colegio Santa Maria  
de la Providencia

Aldatze Kalea, 1 Eibar - Gipuzkoa  
Tel.: 943 20 11 50 - aldatzew@aldatze.org

## 5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN  
BIDE**




**AUTO  
ESKOLA**



**ORDUTEGIA:**  
**09.30-13.00**  
**15.30-20.30**

## GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac  
Tel. 943 20 34 45  
**EIBAR**



**zuk uste baino hurbilago,  
nahi bezain urrun  
hel daitezten.**

**EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA**

EUSKAL IRURLARITZA




GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, ENBETASUNA  
ETA BEREZITASUNA

EDUCACIÓN, INCLUSIÓN  
E DIVERSIDAD

## Aurrematrikulak


HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN



ITZIO D.B.H.

943 70 22 89

**Nahi bezain  
URRUN HELTZeko.**  
**Heziketa ZIENTIFIKOA.**  
**Heziketa MODERNOA.**  
**GIZA heziketa.**  
**HIRU HIZKUNTZAKO  
heziketa.**



MOGEL ISASI D.B.H.

943 20 30 94



AMAÑA

943 20 72 50

**Otsailaren  
11 ra arte**



**2011  
2012  
IKASTURTEA**




ARRATEKO ANDRA MARIA

943 20 72 35




J.A. MOGEL IKASTOLA

943 20 84 87



SAN ANDRES

943 20 79 95



URKIZU

943 12 17 78